


Léon Léon



KOMEDIAK:

- Haurrak azken hitza bere!
- Matturinaren gapoinak
- Ttomas ezkongei
- Herriko besta biharamunean
- Mehetegiko nausia!

ALEGIAK:

- Belea arrano nahi
- Erbia eta igelak
- Azeri zaharra
- Aita xaharra eta lau semeak

**Bortz komedia
eta
lau alegia**

Léon Léon

KOMEDIAK:

- Haurrak azken hitza bere!
- Matturinaren gapoinak
- Ttomas ezkongei
- Herriko besta biharamunean
- Mehetegiko nausia!

ALEGIAK:

- Belea arrano nahi
- Erbia eta igelak
- Azeri zaharra
- Aita xaharra eta lau semeak

**Bortz komedia
eta
lau alegia**

ARGITARAPENAK



Euskadiko
X. Euskal
Antzerki
Topaketak
Azpeitian



Argitaratze urtea 1992

Argitarapena ez dago salgai

Argitaratze honen zuzendaritza:



• LVSKO JAVVLÄRITZÄ - KVLTVKA SÄLLÄ •

Textoareen orrazketa: **Daniel Landart**

Diseinua eta irudiak: **Alberto Piñero**

Legezko gordailua: S.S. - 884-92

AURKIBIDEA

Léon Léon idazleaz bi hitz.....	5
Belea arrano nahi z.....	7
Erbia eta igelak	11
Azeri zaharra	15
Aita xaharra eta lau semeak	19
Haurrak azken hitza bere!	23
Matturinaren gapoinak	37
Ttomas ezkongei	45
Herriko besta biharamunean	63
Mehetegiko nausia!	73

LEON LEON IDAZLEAZ BI HITZ

Deitura Léon zuen. Izena ere bai. Baina izen berdina zeukan beste batekin ez konfunditzeko, Pierre-Léon LEON ere deitu izan dute. Lapurdiko Hazparrnen sortua zen, 1896.eko abuztuaren 18an. Familiako zazpigarren haurra zen. Bost anaia eta sei arreba zituen.

Ikasketak egin ondoren, apaiztu zen eta luzaz Uztaritzeko erretore egon. Bere azken arnasa, 1962an eman zuen.

Euskal literaturan, Léon Léon, bereziki itzultzaile gisa ezagutua da. “**Jesu Kristoren imitazionea**» eta ere La Fontaine frantses idazlearen “**Alegiak**” euskaratu baitzituen, “**Alegia deusez**” izenburupean.

Bestalde, artikulua zenbaitekin batera, hamahiru ipuin asmatu zituen bai eta sei komedia (1), “**Gure Herria**” aldizkarian publikatuak izan zirenak.

Komedia hitza nahitara erabiltzen dut, Léon Léonek idatzi esketxa horien deitzeko, eta bestalde, garai hartan, Iparraldeko jendeak behintzat, “antzerki” hitza bera ez baitzuen ezagutzen ere!

Derragun, Léon Léon izan dela Iparraldeko bigarren komedia idazle “famatu”. Lehena, Jean Barbier, Senpereko erretorea dugu. Hark zuen, 1920.a inguruan, erabaki eta finkatu, komediak gela barruan edo behintzat aterbean egingo zirela. Ordurarte, Iparraldean, ikusgarri guztiak, dela pastorala, maxkarada etabar, kanpoan egiten ziren.

Pastoraletan, ez zuten gizonek baizik parte hartzen.

Aldiz, konturatuko zarete, Léon Léon-en sei komedietatik bostetan, antsezleen izenak, denak emakumezkoenak direla. Eta hori zergatik? Garai hartan, Elizak edo elizgizonek ez zutelako onartzen neska-mutilek teatroa elkarrekin egin zezaten. Beraz, edo mutilek bakarrik, edo neskek bakarrik osatzen zuten taldea. Gertatu da ere, mutilak neska jantzitan ematen zirela edo aldrebes.

Bere komediendako Léon Léon-ek aukeratu zituen gaiak oso ximpleak dira: fartza giroko xelebrekeriekin, lasai irripar egiteko. Batzutan, gogoetagarri izan daitezke, urrikiaren itzulian batez ere.

Euskara aldetik, atzo erabiltzen zenetik eta gaur-egungoaren artean, nolako aldaketa! Zenbat esamolde desberdin! Eta zenbat hitz gehiago erabiltzen ez ditugunak, hala nola “errekitu” eta beste.

Dударик gabe, Hazpandar idazleak merezi zuen errauspetik jalgi genezan!

Daniel Landart.

(1)

Gure xokoan


Herriko besta biharamunean

Matturinarek gapoak.

Mehetegiko nausia

Tomas ezkongei

Haurrak azken hitza bere



BELEA ARRANO NAHI

BELEA ARRANO NAHI

Bele hura, oharturik egun hartan
arrano batek bere aztaparretan
bildotx bat airez-aire nola zeraman,
nahiz zen gerruntzez herbailago (1),
ez haatik tripuntzi txarrago,
kaskoan hartu zuen, berehala,
egin behar zuela hark bezala.

Hantxe, larre baten aldean, artalde bat baitzen,
itzuli-mitzulika dio gainez-gain behatzen.

Eta bildotx andana baten artetik,
batto badauka laster begistaturik:
ederrena,
gixenena,

ardi gazte eta gotor (2) baten ume lehena,
hots, artzainak herriko apezarentzat zukana.

Gain hartarik xoriak, hegal zafraka,
bildotxa begiz xitan (3) bezala dauka:

- Ez zakiat zoin den hire ama-hazlea -
da ari, bere buruarekin, belea -
bainan aski joria (4) hizela bazaukaiat (5) nik,
eta, hiri esker, eginen diat ase onik.

Hori erraitean,
tirria (6) gaitzean,

zeru gainetik tiroa bezala kolpez jautsi
eta, bildotxaren bizkarrerat egin jauzi.

Ondikotz (7) ez baitzen delako bildotx karana (8)
behialako gasna hura bezain arina.

Eta, bestalde, iduri larreko sasía,
ilea hain zuen lodi bai eta nahasia
non beleak bere aztaparrak han sartu
eta ezin baitzituen handik ateratu.

Artzainak errecki zuen beraz eskuratu
eta bere haurren jostagailu, kaiolatu.

Onak izanikan ere kartak
partida maiz galduko ausartak.

- | | | |
|-----|-------------|--|
| (1) | herbail: | ahul |
| (2) | gotor: | tarro, handixka |
| (3) | xitan: | oihoak arroitzeak bezala, arta handiz begiratzen |
| (4) | joria: | lodia, gizena |
| (5) | bazaukaiat: | iduritzen zaidak |
| (6) | tirria: | gogobizia |
| (7) | ondikotz: | zorigaitzez tamalez damurik |
| (8) | karana: | agradosa, "gisakoa" |



**ERBIA
ETA
IGELAK**



ERBIA ETA IGELAK

Bere erbitegi zolan andere Erbi,
kurruxkan janik aza-hosto bat edo bi,

gogoetaka zagon, bihotza trixterik.
Zilo ilun batean zer egin besterik?
Sortzez eta jitez izialdurak jana,
hortaz narda (1) bat bazuen sartua barna.
- Putrunak (2) zoin diren urrikalgarri! -
zion (3) egun hartan bere buruari.

Beti ikaretan,
beti dardaretan!

Sekulan ez plazer oso garbi bat!
Etsaiak non-nahi, bai, eta zonbat!
Jana ere ez gozatzen!
Horra nola bizi naizen!

Ene putrunkeria horren gatik,
ez dut behinere, sortuz geroztik,
egin lo ihitzik (4)
begi batez baizik!

Kasko-zuri zuhur batek, hemen,
badakit zertsu dautan erranen:
- Putrunkeria hortatik senda zite (5)!
- Hori aise errana da eta fite!
diot ihardesten, kasko-zuriari.
Gaitz hori uste duzu den sendagarri?
Hola zagon bada erbia gogoetaka!

Zilotik noizbait, jalgi zen, orotara behaka,
barnea ttipi (6), ikaretan eta grinatua,
hats, itzal... ez deus batentzat sukarrak hartua.
Bada, hantxe zagolarik dardaretan,
harrabots bat egin zen bazter heietan,
baitzuen hor aski, aski eta sobera,
putinka (7) joaiteko xendra bati behera.
Xendra haren buruan inta (8) bat baitzen,
ikusirik "pluf, pluf, pluf" urean sartzen.
Inta hegi hartan zauden igelak.
- Ho! Ho! -zuen egin erbi ergelak.
Nor niz ni (9)? Zer? Bertzeak ni bezala?
Nik ere norbait izitzen dutala?
Ha! Zer ihizia (10) haatik ni! Zer soldadoa!
Ni ikusi orduko, etsaia urpera doa!

Oraikoan ikusten dut nik
nehor ez dela hain putrunik
non ez duen egun batez, han edo hemen,
bera baino putrunago bat hatxematen!

-
- | | | |
|------|-------------|--|
| (1) | narda: | arrangura |
| (2) | putrunak: | lotsatiak, beldurtiak |
| (3) | zion: | zioen |
| (4) | lo ihitzik: | xortarik, lorik batere ez |
| (5) | zite: | zaitez |
| (6) | tñipi: | hertsi uzkur |
| (7) | putinka: | lau hazka, laster |
| (8) | inta: | putzu, lohitzune |
| (9) | nor niz ni: | nor naiz ni? Nor gara gu?
Espantu egitearen adierazteko |
| (10) | ihizia: | deabrua, alimalea |



AZERI ZAHARRA



AZERI ZAHARRA

Azeri zahar bilo zuri bat,
zaharragorik ez baita hanbat,
zaharra bezain abila,
abila bezain bipila,
oilo eta oilasko jale famatua,
izan zen noizbait artean (1) hartua.
Bainan hartua hartu,
ez zen eiki lotsatu (2).

Eta, lau hatzez hain ederki zen katzakatu (3),
non artearen hortzetatik baitzen ateratu.
Ateratu bai, bainan, ahalgeak jana,
han utzirik, zorigaitzez, bere buztana!

Holako bat zitzaion azeri zaharrari
buztan-motz agertzea, lagunen trufagarri.
Luzaz egon zen gorderik bere zilo-zolan,
bere buruarekin gau eta egun karkulan (4),
nola, bada, bai nola,
makur hori antola?

Bazakien buztana ez dela,
pentzetako belarra bezela,
behin moztuz geroztik heldu berriz.
Eta, bakar-bakarra ez egon nahiz,
dohakabea (5),
buztan-gabea,
huna zer zitzaion maltzurrari gogoratu:
axeriak zirenean elgarretaratu,
biltzarrera azken-azkena etorririk
eta, denen gibel-gibelean jarririk:
- Ene lagun maiteak - zioten erran deplauki (6).
Gure buztan hau zertako dugun xuxen nork daki?
Ez zaizue iduritzen, nahiz den ederra,
horren karga dela dorpea bezain alferra,
beti eta orotan
zilin-zilin herrestan,
nahi-t-ez ixtil eta erauts biltzale hauta,
garbitzeko, gero, egun bat osoa behar baita?
Buztan hori, beraz, behin betikotz
dugun (7) guziek orai berean motz!

Abila zen, eiki, delako azeri zaharra.
Biltzar hartan ez baitzen haatik abil bakarra!
Hura ixildu orduko,
bertze bat xutitu, ttanko (8):
- Ontsa mintzatu zira, lagun, bai, segur ederki!
Eta zure erranari nahi dugu jarraiki.

Bainan gure buztana moztu baino lehen,
 ikusi nahi nuke zurea zertan den!
 Hor azeri zaharra itsuski kexatu,
 eta, biltzarretik, abian ateratu,
 urruntzearekin, nahi al'ez,
 ageri agerian emanez,
 idor eta motza,
 bere buztan zotza (9).


Bazoalarik han-hara,
 bertzeen irri-karkara!
 Eta han berean axeriek deliberatu
 buztan ekartzeko moda behar zela beiratu (10).

Hortan segurik jendeeri nausi axeriak:
 ez itsurat nola-nahi hartzen moda berriak!

- | | | |
|------|------------|--------------------------------|
| (1) | artean: | zapoan, Iranpan |
| (2) | lotsatu: | etsitu |
| (3) | katzakatu: | gudukatu |
| (4) | karkulan: | gogoela |
| (5) | dohakabea: | malerusa, gaixoa |
| (6) | deplauki: | lainoki, lasal, gostuan |
| (7) | dugun: | dezagun |
| (8) | ttanko: | brau, tanpez, tupustean |
| (9) | zotza: | makilatxoa, (hemen) punta xuta |
| (10) | beiratu: | atxiki, gorde |



AITA XAHARRA ETA LAU SEMEAK



AITA XAHARRA ETA LAU SEMEAK

Aita xahar batek beihala,
ikusirik hiltzera zoala,
bildu zituen bere semeak
eta erran: -Ene haur maiteak,
- Jainkoari diozkat (1) eskerrak -
badakit zoin zirezten azkarrak!
Bainan nahi dut, hil baino lehen,
xuxen jakin azkarrena zoin den!

Soka hau duzue beraz aldizka hartuko
ea zoinek duen errexkienik hautsiko!

Semeek egin (2) zuten -zer pentsa bertzela?
beren aita buruz ttipitzen ari zela.
Eta, baitzakiten hiltzera doan bati
galdatua behar zaiola eman beti,
zaharrenak hartu zuen beraz delako soka,
eta, hautsi beharrez, lotu zen indarka,
bai eta uko-egin (3) ere, etsiturik (4).
Haren ondotik, hor, bigarrenak harturik,
sokaren hausteko zer-nahi (5) zuen egin.
Hirugarrenak eta laugarrenak berdin.
Bainan denek alferretan!

Irrino bat begietan,
aita xaharra heieri beha egoki:
- Soka txar horrek nola duen ihardoki (6)
ohartu zirezte (7)? -zioten (8) erran orori.
Zuen ustez, zerk emaiten dio indar hori?
Beha, lau piruz (9) egina da, zoin polliki!
Lau piru mehe, elkarri lotuak tinki.

Piru bakotxa
trenka (10) errexa!
Bainan, lauak elgarrekin,
zuek ez nik, nehork ezin!

Horra zer ondorio duen bat-egiteak!
Sekulan ez ahantz hori, ene haur maiteak!
Lauak hitzeman, ez zutela segur ahantziko,
eta beti-beti lauak bat zirela biziko.

Egunak jin eta egunak joan,
aita xaharra zendu ondoan,
aitaren galtzeaz eginik ontsa nigar,
hastean, ederki aditu zuten elgar.
Bainan gero, batek hau eta bertzeak hura,
bakotxa bere hiru aneiez errangura (11),
aharrez (12) ahar, auzitegiz auzitegi,
elgarri amor emaiteko jaun-handiegi,
ahaide (13) eta auzo zonbaitek, dena karkula,

sua hiltzen laguntzeko orde, azpiz akula (14),
 hots, lau mutikoak, eigarrekin makurtu!
 Batzu bertzeekin sekulakotz samurtu!
 Eta, aita xaharrek utzi ontasunak
 hor barreiatu (15) laster, guztiz gehienak.
 Piruka-piruka,
 barreiatu soka!


(1)	diozkat:	dizkiot
(2)	egin:	pentsatu (hemen)
(3)	uko egin:	amor eman
(4)	etsiturik:	esperantzarik gabe
(5)	zer-nahi:	zazpi eginahalak (egin)
(6)	ihardoki:	irabazi
(7)	zirezte:	zarete
(8)	zioten:	zien
(9)	piruz:	hari miko, limarrez
(10)	trenka:	hautsi, eten, moztu, apurtu
(11)	errangura:	kexu
(12)	aharra:	kasaila, kalapita
(13)	ahaide:	familiako azkazia
(14)	akulatu:	areagotu, bultzatu, sustatu, suspertu
(15)	barreiatu:	sakabanatu



OHARRA:

Léon Léon idazlearen alegiak eta ipuinak "ALEGIA DEUSEZ"
 deitu liburuan aurkituko dituzu.

HAURRAK AZKEN HITZA BERE!



HAURRAK AZKEN HITZA BERE!

AGERTZEKOAK:

URXULA, 58 urte }
KOXEPA, 55 urte } *hiru ahizpa mutxurdin dendariak (jostunak)*
XABINA, 52 urte }
GAXUXA, 16 urte, *neskato eta aprendiz*
MANUELA, 45 urte
MAJI, 22 urte

AGER-TOKIA:

Dendaltzako (jostun) lantegi bat, halako lantegi batean ohi diren tresna eta puskekin... Mahain bat bederen, lauzpabortz kadira... Zoko batean kutxa bat... Erlojubat pareta batean, bederatzi orenak aintzinttoan...

- I -

(Urxuia eta Koxepa josten ari dira ixilik... Koxepak ageri du loarekin borroka ari dela... Bederatzi orenak jotzearekin, Urxulak burua altxatzen du lanetik).

URXULA. – Lo zaude, Koxepa?

KOXEPAK (*aharrosia*). – Ez, Urxula, ez!

URXULAK. – Zer ezetz? Lo zinauden, bai ala ez?

KOXEPAK. – Bai, Urxula, bai!

URXULAK. – Errazu ba egia hastetik! Uste baduzu lo egiteko mementoa dela!

KOXEPAK. – Ez, Urxula, ez!...

URXULAK. – Ni ere logale naiz!...

KOXEPAK. – Bai, Urxula, bai!...

URXULAK. – Gu lokartuz, ez baita lana bera eginen!

KOXEPAK. – Ez, Urxula, ez!

URXULAK. – Ez eta bai! Bai eta ez!... Noiz ikasiko duzu, Koxepa, bertze zerbaiten erraiten?... (*Erlojuari beha*). Zer tenorea biltzeko, arropa demuntre hau despeitu nahiz!... Gauazko lana deus-ez-lan dela baitzion gure ama zenak!... Egia...

KOXEPAK. – Bai, Urxula, bai!

URXULA. – Egia! bainan behar-ordua halakoa delarik!... Errazu, Koxepa, badakizu bederen norentzat ari garen lanean gaur?

KOXEPAK. – Zerarentzat! Haranederreko andere Majirentzat!...

URXULAK. – Harentzat eta berarentzat!... Sinesten ahal nauzu bertze neho-rentzat ez ginitazkela hola lanean ari arratseko bederatzi orenetan!... Beharrik da Maji gure praktikurik hoberena!... Zonbat arropa ez du behar

urteburu batetarik bertzerat!... Eta denak guri egin-arazten!... (*Josten ari duen zaia erakutsiz*): Zer zaia plantakoa ukanen duen hor! Ala ez?

KOXEPAK. – Bai, Urxula, bai! Herriko pollitena!

URXULAK. – Hola bai!... Uste nuen!... Andere Maji ez baginu lan email!... Zeruko ama ona! Zer bilaka ginitazke?

KOXEPAK. – Ez dakit, Urxula!

URXULAK. – Zer! ez dakit!... Badakit bai nik! Dendaltza utzirik joaiten ahalko ginitazke antzara-zain hiru ahizpak: ni, zu eta Xabina! To! Zer ari zaiku hura gure laguntzerat jin gabe?

KOXEPAK. – Sukaldeko lanen egiten nik uste!...

URXULAK. – Sukaldeko lanak? Gaxuxa ez ote da hor eta ez ote diozkat nik hari manatuak sukaldeko lanak?... Nor da etxekandre hemen: Xabina, zu ala ni?

KOXEPAK. – Zu, Urxula, zu!

URXULAK. – Ez dut dudarik, zaharrena ni naizenaz geroz! Berrogei-ta hemezortzi urte badituz gero!

KOXEPAK. – Nehork ez lezake erran!

URXULAK. – Nik erraiten baitut haatik eta ahalgerik gabel... Zuk, Koxepa, berrogei-ta hamabortz bat nonbeit han eta Xabinak berrogei-ta dotzena bat!... Iduritzen zait obeditzeko adinean zaretela biak!...

KOXEPAK. – Aise, Urxula, aise!

URXULAK (*haria hautsi zaio*). – Are! ez nuen bertze beharragorik!... Nik ez dakit zerokin egiten dituzten oraiko hariak! Denak ahultzen ari dire: hariak eta jendeak!... (*Hariaren koropilatzen ari dela*) Zu, Koxepa, askitto obedienta zare oraino!... Bainen Xabina? Emazu bada lanean niri behar egoiteko orde! Maji gaur berean jin beharra da arropa hunen billa! Lana hartuz geroz, egin behar da eta erran tenoreko! (*Haixturak erortzen zaizko*). Biltzikidazu haixtur hoik, Koxepa!

KOXEPAK. – Gogotik!... Horra, Urxula!

URXULAK. – Zer zorigaitzari buruz doan haatik andere Maji ere!

KOXEPAK. – Zer zorigaitz?

URXULAK. – Ez baitakizu? Goizean jakina dut nihauk ere!... Ezkontzerat doa!...

KOXEPAK. – Ezkontzerat?

URXULAK. – Ezkontzerat!... Gaixo dohakabea!... Holako neska plantakoa!... Ba ote ditake zorigaitz izigarriagorik?

KOXEPAK. – Gut!l

URXULAK. – Bihirik!... Erraiten nion ba eta errepikatzen aspaldi huntan kasu egiteko!... Zoazi zu zuhurtziaren erakasterat gazteriari!...

KOXEPAK. – Zorigaitz hori bederen etzaiku gertatu guri!

URXULAK. – Ez gertatuko! ... Nori esker? Erradazu bada: nori esker?

KOXEPAK. – Zuri esker, Urxula!

URXULAK. – Egiak bere bidea behar, zu askitto aise begiratu zaitut lanjer hortarik!... Xabinak eman dauzkit lanak!... Oraino ere, hum! hum! ezkontmina arras joana duenetz!... Begi-beharriak ontsa idekiak baitauzkat uruski!... Ni hor naizeno, ez du lanjerik!... Edo bertzela lekuak hustu beharko lituzke, Mariana zenak bezala!...

KOXEPAK. – Gure ahizpa zena!... Gazteena!... Jainkoak bere lorian duela!

URXULAK. – Edo galxagorrik bere suan!

KOXEPAK. – Ho! Urxula!

URXULAK. – Hobeko zuken hak ere guk bezala egin balu!... Nik eman eta manatu guzien gatik, nahi ukan du ezkont-saltsa jastatu!... Bai, pekatu ere laster!... Bi urteen buruko hila zen!

KOXEPAK. – Ez du beharbada horrek hil!

URXULAK. – Zerk bada!... Gu bizi gara!... Zonbat du hila dela?

KOXEPAK. – Hogei urte, Urxula!

URXULAK. – Hogei urte!... Beraz haren alabak...

KOXEPAK. – Gure ilobak...

URXULAK. – Ez da gure iloba, errana dautzut ehun aldiz!... Ez dugu ezagutzen, ez ezagutu nahi!... Neska xirtxila ez bertzea!... Bi urte ezkontua dela hura ere!... Amak emana kotsua segur!... Odolean zuen gaitz hori!...

KOXEPAK. – Senarra galdua duela ez duzu ahantzia dudarik gabe?

URXULAK. – Ez eta ahantzi nahi ere!... Alarguntsa da? Hobe!... Dagola saltsaren erdian bere haurrarekin!... Uste-zuen ba joan den urtean, senarra hil zaiolarik, hunat hartuko ginuela!... Ez! ala fede!... Ez diot barkatzen, ez sekula barkatuko!... Ez hari, ez haren haurrari!...

KOXEPAK. – Eri omen da egun hauetan!

URXULAK. – Nor? Haurra?

KOXEPAK. – Ez! ilo...

URXULAK. – Ez dela gure iloba!

KOXEPAK. – Haurraren ama erran nahi nuen!... Haurraren ama da eri!...

URXULAK. – Hobe! Hobe!... Gure beha balin badago sendatzeko, ez dago sendaturik!... Gure auzorat jinez egoiterat, uste ukan du emeki emeki, bilduko nituela!... Ez nau ontsa ezagutzen, ori!...

(*Sukaldean Gaxuxa hasi da kantuz: "Inxauspeko alaba dendaria"*).

URXULAK. – Horri berriz! Aditzen duzu gure Gaxuxa? Gure moko-mehea? Kotsolatuko haut nik, haizen bezalako aprendiz! (*Oihu egiten dio*): Gaxuxa! Gaxuxa!...

- II -

GAXUXAK. – Oihu egin dautazu, andere Urxula?

URXULAK. – Lauetan!

GAXUXAK. – Ez dut behin baizik aditu!

URXULAK. – Kantuz aritzeko orde, ixilik ari bahintz lanean, lehen aldian ere adi hezake nere oihua!... Zonbatetan debekatua daunat kantuz aritzea? He! zonbatetan?

GAXUXAK. – Ez naiz xuxen oroit, andere Urxula!

URXULAK. – Debekatua daunat, bai ala ez?

GAXUXAK. – Bai, bainan aspaldi!

URXULAK. – Zertako ari haiz beraz kantuz?

GAXUXAK. – Garbiki erranen dautzut, andere Urxula!... Baxeren egiten ari naizenean, baxera zerbeit eskuetatik lerratzen balin bazait, kantuz behar dut hasi nahi ala ez!... Amak erakatsia daut!...

URXULAK. – Zertako behar dun kantuz hasi?

GAXUXAK. – Zuk ez aditzeko!

URXULAK. – Nik ez aditzeko? Zer erran nahi dun?

GAXUXAK. – Eta ba!... Baxera hausten!... Nahiago dut eta zuk ere hobe duzu ez dezazun adi...

URXULAK. – Ha! Neska txarra ez bertzea!... Kantuz ari haizen aldi guzietz beraz, zerbeit badun hautsirik?

GAXUXAK. – Gehienetan bederen!... Bainan ez naiz gehiago ariko! Hitzemaiten dautzut!...

URXULAK. – Hobe dun hire onetan!... Ez dinat jakin nahi ere zer dunan hautsi ostion!...

GAXUXAK. – Hobe duzu bai!

URXULAK. – Non da andere Xabina?

GAXUXAK. – Bere ganbaran, nere ustez!

URXULAK. – Zer da? Etzaterat joana gu hemen utzirik?

GAXUXAK. – Ez daut erran!... Lisa-burdin bero batekin joana da!... Ohearen berotzeko nik uste!

URXULAK. – Adu duzu Koxepa?... Gu hemen begiak uspelduak lanean ari eta Xabina ohearen berotzen!...

KOXEPAK. – Hain da hotzbera Xabina!

URXULAK. – Emazu hor, zuk ere!... Haren alde zare beraz eta nere kontra?

KOXEPAK. – Jainkoak begira nezaia!... Ni zure kontra, Urxula? Nahiago nuke hill!...

(Kanpoko ateari panpaka norbait).

URXULAK. – Andere Maji da hor seguraz ere!... Hail, Gaxuxa, idekitzerat eta sar-araz ezan hunat!... *(badoa Gaxuxa).*

KOXEPAK. – Etzare samur, Urxula?

URXULAK. – Ez samur! Ez samur!... Batere ez dakit!... Iduritzen zait etzarella lehen bezain umila!... Zenbeit egun hauietan sobera bezala erakusten duzu zure burual!...

KOXEPAK. – Uste duzu, Urxula?

URXULAK. – Erraiten dautzutanaz geroz!

KOXEPAK. – Hala da, hala da segur!... Ez dut gehiago eginen!...

- III -

GAXUXAK *(atetik)*. – Etxekandrea, ez da andere Maji!

URXULAK. – Nor da ba?

GAXUXAK. – Mañuela!

URXULAK. – Nongo Mañuela?

GAXUXAK. – Auzokoa!

URXULAK. – Ez dinat ikusi nahi!... Nere etxean sartzeko kopeta hartu du?... Utz ezan kanpoan!... Zer sanfreta!

KOXEPAK. – Jainkoaz emazu apalago, Urxula!

URXULAK. – Eta zu, zaude ixilik, Koxepa!... Mañuela hori ez balitz zure iloba tzar haren laguna eta egun guzietako laguna, ez nuke deus erraitekorik!... Ez hura, ez haren adiskiderik ez dut ikusi nahi nere etxean!...

MANUELAK *(atearen gainean zagon Gaxuxa bazterturik sartua)*. – Altaba ikusiko nauzu nahi ala ez!...

URXULAK *(xutiturik)*. – Zoaz kanporat!

MANUELAK. – Ez, ez naiz joanen, hartu dudan mezua egin gabel

URXULAK. – Zoazi kanporat!... Emazte hori emazue kanporat!... *(jartzen da*

zainak daldaran).

MANUELAK. – Jakinen duzu bai zertarat jina naizen, andere Urxula!... Zure ilobak...

URXULAK. – Ez dut ilobarik nik!

MANUELAK. – Zure ilobak igorria naiz!... Azken hatsetan da!... Hil aintzin nahi zaituzte ikusi!...

KOXEPAK (*xutiturik*). – Jainko maitea!... Hauxe da berria!... Gaixo Aña!... Heldu naiz! Heldu naiz! (*abiatzen da*).

URXULAK. – Zaude hor, zu!... Edo bertzela ez zare gehiago hemen sartuko!... (*Koxepa jarri da ikaretan*).

- IV -

XABINAK (*haizea bezala sarturik*). – Zer duzue hola oihuka?

GAXUXAK (*ordu arte atearen gainean egona, sartu da Xabinarekin batean*). – Mañuela da erraiterat jina zuen iloba Aña arras gaizki dela!...

MANUELAK. – Bai, arras gaizki!... Azken hatsetan! Bizi bada segurik oraino! Bakarrik utzia dut lasterka jiteko hunat!... Zu bederen, andere Xabina, ez ote zare jinen Aña gaixoaren ikusterat?

XABINAK. – Zer ba, jinen banaiz!... Goazen berehala!...

URXULAK. – Jainkoak begira, Xabina!...

XABINAK. – Gure iloba bakarra ez dugu hola hiltzerat uzten aha!

URXULAK. – Nor da etxekoandre hemen, ni ala zu?

XABINAK (*holako duda batekin*). – Gu!... Gu hiruak!...

URXULAK. – Gu hiruak?... Noizez geroz?... Etxekoandre hemen ni naiz, ni bakarrik!... Jakin zazu, Xabina, zonbat ere baitzare nere ahizpa, etxe huntarik ateratzen bazare harat joaiteko, nerekilakoak eginak dituzula sekulakotz!... Sekulakotz!... Aditu duzu? Se-ku-la-kotz!!! (*Xabina jarri da nigarrez*).

GAXUXAK (*Urxulari*). – Zer bihotz-gabea!

URXULAK. – Habil hi sukalderat!... Bihar goizean eginen dun paketa!

GAXUXAK (*ateratzean*). – Bai segurki!... Eta gogotik!

MANUELAK (*Gaxuxaren ondotik ateratzen dela*). – Higuingarria ez bertzeal!... Jainkoak madarikatuko zaitu!...

URXULAK. – Zoazkit bistatik zu ere!... (*Mañuelaren ondotik ateratzen da*).

- V -

(*Koxepa eta Xabina, nigarrez daude apur bat ixilik... gero*)

XABINAK. – Zer izurritea holako ahizpa batekin, holako burregosa batekin bizitzea!...

KOXEPAK. – Emazu apalago, Xabina! Aditzen bazaitu!

XABINAK. – Adi nezala, nahi badu!... Badut aski azkenean! Asea naiz!... Ez ote dugu bien zorigaitza egin betidanik?...

KOXEPAK. – Ixo!... Ixo, Xabina!...

XABINAK. – Ahantzia duzu, Koxepa, zer ez duen erabili gu ezkontzerat ez uzteko?

KOXEPAK. – Ez dut ahantzia, Xabina! Bainan otoi zaude ixilago!

XABINAK. – Zuk oraino berehala onartu duzu hori, hain zare ahula!... Zu beti eta berehala halabiz erraiteko egina zare!... Bainan ni, ni!...

KOXEPAK. – Zu ni bezalatsu, Xabina!... Ez duzu beharbada halabiz berehala erraiten nik bezala, bainan hortaratzen zare zu ere goiz edo berant, Urxula mintzo delarik!...

XABINAK. – Baditake!... Urxularen faltaz gure bizia ala tu zafla bat, berdin-berdina da!... Hain maite izanen nituen haurrak!... Gu haurrik gabe ikustea ez aski, samururazi gaitu oraino Mariana zenaren haurrarekin, gure iloba Aña maitearekin!... Azken hatsetan delarik, ez garela haizu haren ikusterat!... Eta Añaren haur ñimiño maitea zer bilakatu behar da, bere ama galtzen badu?... Zer adin duke?

KOXEPAK. – Haurrak? Hiruzpalau hilabetel!

XABINAK. – Hiruzpalau hilabetel!... Gaixo muñuñoa!... Sarri bakar bakarrik izanen dela munduan!... Aitarik ez amarik gabe!... Umexurtx!... Ez ez nagoke gehiago! Banoa harat! (*xutitzen da*).

- VI -

URXULAK (*Xabina xutitzearekin sartu da*). – Lanean aritzeko orde, zer ari zare hor xutik, Xabina?

XABINAK. – Zera!... Orratza hautsi zait eta bertze baten bila nindoan!...

URXULAK. – Hola ba!... Ez duzu gero alfer egoiterik!... Manuela ema tzar horrek zer denbora gal-arazi daukun!... Bederatziak eta erdiak!... Haranederreko Maji hemen dukegu gutien ustean!... Ez dugu beha egon-arazi behar!... Ikusi duzue nola atera-arazi dutan bertze hura!... Konduaren gainekorik ez du haatik galdatu!... Ilauna ez bertzea! Nere desafiatzerat hunaraino jina!... (*Koxepa nigar-hipaka hasi da*). Zer duzu, Koxepa? (*Are gehiago ari da*). Errazu bada zer duzun!... Badakizu zuk, Xabina, zer duen?... Zer, zu ere nigarrez?... Zareten bezalako andre Madalenak!... Aski hola, he!... Asea naiz lepo-zintzurreraino! (*Kexu kexua ateratzen da*).

- VII -

XABINAK (*nigarren artetik*). – Zer uste du gure Urxulak, iturria hesten den bezala, gelditiakela nigar egitetik?... Ageri du ez dakiela zer den nigarra!

KOXEPAK (*ateari beha eta ahapetik*). – Behinere ez dut ikusi nigarrez ari!

XABINAK. – Bihotzik ez du... Edo harrokaren pare mokortua du!...

MAJIK (*artetik*). – Sar ditake? (*sartzen da*)... Zer! nigarrez biak?... Zer duzue?... Makur zenbeit gertatu zaitzue?... Andre Urxula beharbada eri?

KOXEPAK. – Ez, andere Maji, ez!... Ez dugu deusik!

XABINAK. – Zertako erran gezurra, Koxepa?... Andere Maji gure adiskidea da eta beharbada laguntzen ahalko gaitu!

MAJIK. – Zer da?... Erradazue laster!

KOXEPAK. – Zaude ixilik, Xabina, oto!l

XABINAK. – Ez! ez naiz ixilik egonen!... Badut nik ere aski!

KOXEPAK. – Banoa beraz ni hemendik!...

XABINAK. – Zoazi, Koxepa, zoazi!... Bihotzaren gainean dutan opilak itotzen ari nau!... Bihotza behar dut hustu!... Zoazi, Koxepa!... Edo ez! Ni joanen

naiz andere Majirekin nere ganbararat!... Zu, zaude hemen!... Zato, andere Maji, zato otol! (*ateratzen dira biak*).

- VIII -

KOXEPAK. – Gaixo gul... Zer herstura ikaragarrian garen!... Hain errex litakelarik bakean bizitzea!... Ha! Urxulak barkatu nahi balio Añari!... Deusek ez du hunkiko ordean!... Holakoa da gure ahizpa!... Bihotza gakozen hetsia du eta gakoa galdua!...

URXULAK (*ordu orduan sartua*). – Nongo gakoa duzu galdua?

KOXEPAK. – Hauze da harritzeal... Aspaldi hor zinen, Urxula?

URXULAK. – Oraixe jina!... Bainan nongo gakoa galdu duzu?

KOXEPAK. – Nik?... Ez dut... Jes! erranen ote dut?... Armairu ttipiko gakoa dut nehon ezin hatxeman!... Banoa ikusterat ez dutanetz sukaldean utzia!... Barkatu, Urxula, heldu naiz berehala!...

URXULAK. – Zoaz eta zato berriz laster!... Andere Maji ez bide da urrun!

KOXEPAK. – Ez da urrun, ez!

URXULAK. – Eta Xabina non da orai ere?... Beti lanari iheska!... Norat joana da?

KOXEPAK (*atetik*). – Ez da urrun nik uste hura ere! (*ateratzen da*).

- IX -

URXULAK. – Gure Koxepa gaixoa burutik joaiten ari zaikunetz!... Ostion etzakien nigarrez zertako ari zen eta orai bere buruarekin eleka!... Beharko dut...

GAXUXAK (*atetik*). – Andere Maji da hemen, etxekoandrea (*Maji sar-arazirik badoa*).

URXULAK. – Sar zaite, andere Maji! Ongi-etorri!... Zure arropari azken ponduaren emaiten ari naiz... Jar zaite minutaño bat!... Zer dugu berri herrian?

MAJIK. – Emazte gazte bat, ama gazte bat arras eri auzoan?

URXULAK. – Ba ote? Nor hori?

MAJIK. – Ba ahal dakizu andere Urxula!

URXULAK. – Nik? Nondik behar dut jakin? Ez naiz sekula ateratzen-eta!

MAJIK. – Ateratzen ez denari ere berriak heldu zaizko zenbeit aldiz etxerat?... Ala ez?

URXULAK. – Batere ez dakit zer erran nahi duzun, andere Maji!

MAJIK. – Ez ote dakizu, andere Urxula, zure iloba Aña...

URXULAK. – Utz zazu neska tzar hori bere gisal... Ez du balio harentzat ahorik higatzea!...

MAJIK. – Bai segurki balio baitu!... Zer gaizki egin dautzu?

URXULAK. – Niri? Deusik ez!... Hogoi-ta hiru urte ba omen ditu!... Badu beraz hogoi-ta hiru urte neretzat ez balitz bezala dela!

MAJIK. – Badakizu ordean arras eri dela?... Abantxu hila dela?

URXULAK. – Badakit beharbada, bainan ez dut jakin nahi!

MAJIK. – Zer! hil aitzin ikusi nahi zaitu eta etzarella joanen?

URXULAK. – Ez eta gogoratzen ere!... Bainan nork erranak dituzu hain ontsa xehetasun hoiek oro?... Segur naiz Xabina dela salatzailea!... Errekitu txarra! Banuen bai beldurra egun hauetan niri ozartu nahiz hasia zela!...

Kasu eman dezala, kanporat emanen baitut hura ere, lehenago Mariana eman dutan bezala!... Apo txarra!...

MAJIK. – Errazu, andere Urxula, norbeiti mendekatzekotz, mendeka zakizkit, niril... Orai arte, nere arropatzeko eman dautzut lan ausarkil... Jakin zazu hau: ez bazare Añaren ikusterat joaiten eta berehala, nik dut gehiago zangorik ez sartuko hemen!...

URXULAK. – Bainan horrek ez du deus ikustekorik lanarekin!

MAJIK. – Nik emanen diot ikustekoa!... Har edo utz!... (*ateari buruz joaitean*).
Joanen zare Añaren ikusterat edo bertzela akabo nere pratikua!

URXULAK. – Nahi duzun bezala, bainan neska tzar hark ez nauka ikusirik!

- X -

URXULAK. – Beha zozue panpalina horril... Zer du ikustekorik horrek gure zeretari?... Nere etxean ez ote naiz ni etxekoandre?... Bai noskil... Lana kenduko daukula!... Uste balin badu horrek apa!-araziko dautala burua!... Ez! harat joan baino nahiago nuke, ahoa josirik nihauk, goseak hiri!... Ez naiz gero ni haizeak derabilan hosto heietarik!... Ez behar ere!... Zu, zare hor. Koxepa? Ez da goizegi! Ai! errexxi uzten duzu zuk ere lan guzia nere gain!... Nigarrez oraino? Zer bi mila sorgin duzu? Uretarat joaiterik bederen ez dukezu: begietan dituzun bi iturriek emanen dautzute urik aski edateko eta beharrez mainatzekol...

KOXEPAK. – Otoi, etzaitela kexa, Urxula!

URXULAK. – Ba! Ez naiz kexa!... Gostu baduzu, emazu nigarrez nahi bezenbat!... To! eta orain oroitzen bainaiz, delako gako galdu hura hatxeman duzu?

KOXEPAK. – Ez, Urxula! Beldur naiz ez dugula sekula hatxemanen!

URXULAK. – Zerrapoa jauz-arazi beharko!

KOXEPAK. – Holako zerbeit bai naskil... Bainan zerrapo haren jauz-arazteko nor ditake aski azkarra?... Deusik ez dut konprenitzen!...

KOXEPAK. – Nik ere ez!... (*Xabina sartzen da*)

- XI -

XABINAK. – To! Andere Majik ez du ereman bere arropa?

URXULAK. – Badakizu izan denetz ere?

XABINAK. – Uste nuen!

URXULAK. – Uste nuen?... Errazu bada ikusi duzula eta zu zarela hemen gertatzen diren gauzen salatzailea!...

XABINAK. – Bai ni naiz!... Eta gero?... Badut aski azkenean beti izialdurak jana bizitzeaz!... Ez naiz gero zure sehia, Urxula, zure ahizpa naiz!... Ez naiz hemen zure etxean, bainan gure etxean!...

KOXEPAK (*harritua*). – Xabinal... Xabina!...

URXULAK. – Utz zazu bere eztenaren aurtikitzerat!

XABINAK. – Egiaren erraitea eztenaren aurtikitzea balin bada, hobe!... Gezurrak itoa nauka aspaldi huntan!... Egun arte zuri erran guzien gatik maite dut, nere bihotz guziaz maite gure iloba Aña, gure ahizpa zena Maria maite nuen bezala!... Eta zu etzarenaz geroz joan nahi, banoa ni Aña gaixoaren ikusterat!...

(*Urxuia ere xutitu da hasarre izigarrian. Xabinari ihardesterat doa etxetik*)

kasatzeko!... Bainan atea ideki da eta Maji sartu zanpez haurño bat besoetan).

- XII -

MAJIK (*hats batean*). – Oi! zer zorigaitza!... Aña hil dal... Hil aintzin erran daut haur hau, bere haur maitea, zuen gain uzten duela!...

(*Xabina eta Koxepa beren kadiren gainerat erori nigarrez: Gaixo Aña! Gaixo haurra! ari direla intzirika*).

URXULAK (*xutik, ahizper beha, Majiri beha, hasarreak mututua, gertatzen zaiona ezin asmatuz bezala... azkenean*). – Ze!... Ze!... Zer derasazu?

MAJIK. – Aña hil dela!

URXULAK. – Gure gain?... (*irri tzar batekin*). Gure gain!... Bizia galdu baino lehen, burua galdu nuen naski!... Gure gain?... Zer gauzka? Amañotzat!...

XABINAK. – Urxula, Jainkoaren izenean zaude ixilik!... Etzare ahalge?...

URXULAK. – Ni ixilik?... Nere etxean ixilik?... Nork du manatzen hemen?... Nork, Xabina?

XABINAK. – Zuk eta guki!

URXULAK. – Nor da "guk" hori?... Zu zare, Koxepa?

KOXEPAK. – Ni?... Ez, ez, ez!... Eta ez nahi ere!

URXULAK. – Nor da beraz etxekandre hemen?

KOXEPAK. – Ez dakit, Urxula!... Zertako ari zaizkit hola galdeka niri?

URXULAK. – Orai arte bazinakien!... Zer duzu, egun ahantzi?... Ha! ez dakizu nork duen manatzen hemen?... Ikusiko duzu berehala!... (*Majiri*) Zure haur horrekin lekuak huts-kidatzu hemendik abian!... Bertzela (*Majiri buruz badoa ukomiloa bildua... Bainan Xabina ere xutitu da eta Majiri haurra kendurik, haurrari musuka ari zaiola*).

XABINAK. – Ez haurra ez da hemendik joanen!... Hil baten mezua gauza sakratua da eta zuk nahi ala ez haurra hemen egonen da!

KOXEPAK. – Hemen egonen da!...

MAJIK. – Ederki hori!

URXULAK (*aldizka guzieri behaturik eta kexuak dardaratzen diola mintzoa*). – Banoa, zerbeit zorigaitz egin bainezake hemen egonez!... Ikusiko dugu bihar goizean nork ukanen duen azken hitza (*ateratzen da*).

- XIII -

KOXEPAK. – Zer izigarria!... Sekula ez dugu bilduko!... Horren bihotzeko zerrapoa jauz-araziko duenik ez da mundu huntan! (*haurra hartzen dio Xabinari eta musuka jaten*)... Gaixo haurra!... Zer hoben du honek?... Gaixo bildotx umea!... Baina hola, gau huntako non emanen dugu?... Urxularen ganbaratik hurbilegi dire gureak eta sekula nigarrez hasten bada maiteño hau, xahu gare berriz!...

MAJIK. – Utz zazue hemen berean gaurkotz!... Ontsa lo dago eta ez da nik uste bulta batez atzarriko!...

XABINAK. – Ohakorik ez dugu ordean!

MAJIK. – Kutxa huntan arras ontsa izanen dal... Zolan estalki hauk bortzpasei dobletan!... Ederki troxatua da! Ez da segurki hoztuko!... Gaietik bertze estalki hau!... La!... Hola!...

(*Kutxaren itzulian, hiruak belauniko, xoratuak daude haurrari beha*).

MAJIK. – Asa! banoa ni ere!... Aña gaixoa beilatu nahi dut Mañuelarekin!...
Bihar arte, Koxepa eta Xabina!
KOXEPAK. – Bai, Majil... Jainkoak nahi badu!
(*Badoa Maji, haurrari azken musu bat emanik*).

- XIV -

KOXEPAK. – Zer behar gare bilakatu, Xabina?
XABINAK. – Jainkoak nahi duena, Koxepa!... Dolu duzu haurra harturik?
KOXEPAK. – Nik? Ez, ez!... halako bat zait haurraren hemen uztea bakarrik!...
Hemen egoiten banintz ni?
XABINAK. – Norbeit egoitekotz, ni egonen naiz, Koxepa!
KOXEPAK. – Ez! Ez dut nahi!... Gu bietarik ni naiz zaharrena eta niri dago beraz
egoitea!...
XABINAK. – Gazteena aldiz ni eta beraz azkarrena!... Hemen egoiteak batere
ez nau akituko!
KOXEPAK. – Ez dugu elgar adituko hola!... Hoberenik huna zer dugun eginen:
etzaterat joanen gare biak eta gero noizetik noizerat aldizka jinen nola
dagon haurra ikusterat!... He! zer diozu?
XABINAK. – Hola bai!... Itzal dezagun argia eta goazen!...
(*Badoazi biak haurrari musu emanik*)

- XV -

(*Ager-tokia ilunbean dago... Apur baten buruan, argi bat eskuan, agertzen da Koxepa... Argia lurrean pausatutik, belaunka emaiten da haurraren aldean!... Musu eta musu!... Beha eta beha!... Hitz bakar batzu han-hemenka: Gaixo ñimiñoa! Gaixo aingeruñoa! eta holako... Badoa gero bere argiarekin*).

- XVI -

(*Bertze apur baten buruan Xabina da heldu argi bat eskuan. Koxepak bezalako jestu bertsuak egiten ditu... Artetan erraiten: Gaixo poxia! Gaixo pottoloa! Nere pollita! eta holako... Badoa gero bere argia harturik*).

- XVII -

(*Orai Urxularen aldi... Argi bat eskuan heldu da hura ere, zango-punttetan... Xoko guziak ikertzen ditu norbeit han kausi beldurrez... Hurbiltzen da haurraren ganat eta xutik hari behar dago... Belaunkatzen da, haurrari berriz beha egoiten... Ukurtzen da hobeki ikusteko bezala... Haurra perekatzen du... musu emaiten... besoetan hartzen... Harat eta hunat dabila, bizkarrez ateari... Atean agertu dire Koxepa eta Xabina beren argiekin, baina Urxula haurra besoetan ikustearekin, beren argiak itzali dituzte eta Urxulari beha daude, hau deuseri ohartu gabe*).

- XVIII -

URXULAK (*azkenean ikusi ditu ahizpak*). – Zertan zaudete hor?... Zatozte aintzinal...

KOXEPAK. – Ametsetarik ari ote ginenetz ginauden!

URXULAK. – Ez, Koxepa gaixoa, etzarete ametsetarik ari, ez! (*eletrika argiak pizten dira hemen*)... Ni naiz, egiazki ni Urxula! Edo hobeki erraiteko, bertze Urxula bat, nihauk ezagutzen ez nuen Urxula bat!...

XABINAK. – Nola...

URXULAK. – Ha! gogoeta zenbeit eginik nago ostion hemendik joanez geroz!... Alabainan zainak sobera altxatuak nituen lokartzeko!... Itzul hunat, itzul harat, bainan tokirik ezin hatxeman!... Eta gero bat-batean zerbeit zartatu bezala zait ni baitan!... Bihotza erditik hautsil!...

KOXEPAK. – Zerrapoa jauzi hots!...

URXULAK. – Hoiako zerbeit!... Ezdakik zer ideki zait (*bularra joz*) hor, huntaz oroitzearekin!... Sekula senditua ez nuen gauza batek ausiki daut bihotza: urrikiak!... Urrikiak bail!... Ximixta batean bezala ikusi dut nere bizi guzia pozoindatua naukala eta galdua herrarekin!... hunen ikusteko tirriarekin gehiago ezin-egon, haur maite hunen ikusteko goseak jana, jeiki naiz eta hunat jin!... Gainerateko guzia haurrak du egin!... Hortaxe ikusi dutalarik aingeruño hau hoin pollita, hoin hunkigarria, hoin maitagarria, ordukotz bihotzean nuen urrikiak eman du lore bat guziz ederra eta gozoa: amodioa!... Ama baten amodioa!... Haur honek egiazki amatu nau!... Ez nuen sekula erranen hoin ahula nintzela!...

XABINAK. – Amodio hori, Urxula, ez da ahulezia bat, bainan indar bat, mundu huntan ditaken indarrak azkarrena!... Xo!... Atea jo dute naski!...

URXULAK. – Zoazi, Xabina, zoazi otoi zer edo nor den ikusterat! (*Badoa Xabina*)... Koxepa maitea, nere oraiko zorionaren erdian badut bihozmin bat gaitza: gure iloba Añari, hil aintzin, nere barkamendua ez emanik!... haste balitz berriz!...

- XIX -

XABINAK (*atetik*). – Andere Maji da hor, ezin sinetsizko berri batekin jina!...

URXULAK. – Zer berri?... Ona ala txarra?

XABINAK. – Ez dakit xuxen! Nik ona dela daukat!... Zuk, Urxula, hala kausituko duzunetz!...

URXULAK. – Errazu betil

XABINAK. – Nahiago nuke Majik berak erraiten balautzu! (*gibelerat itzulirik oihu egiten du*) Maji, zatol!... (*Maji agertzen da eta, Urxula ikustearekin haurra besoetan, harritua dago*).

MAJIK. – Aña ez dela hila!...

URXULAK ETA KOXEPAK. – Zer diozu?

MAJIK. – Egia baizik ez!... Aña ez dela hila!... Flakatua zen bakarrik!... Bihotza gelditua, ezpainak horituak, geldi-geldia egon da bulta handi bat, arras uste ukan baitugu hila zela... Bainan doi-doia, ez baigare Mañuela eta ni guti harritu, bere-baitaratu da... Erran daukun lehen hitza: haurra galdatu du!... Lasterka jina naiz haurraren bila! (*haurraren hartzerat doa Urxularen besoetatik*).

URXULAK (bizkarrez emaiten dela, Majiri). – Haurraren bila?... Baduzu bururik?... Uste duzu haur maite hau hola utziko dutala joaiterat?... Ez!...

- XX -

GAXUXAK (*atetik*). – Jesus! holakorik nork behar zuen sekula amestu? Andere

Urxula haur bat besoetan!...

URXULAK. – Zer ari haiz hor hi? Egina dun paketa?

GAXUXAK. – Ez! Egiten ari!

URXULAK. – Eginen dun hire moko mehe hori galduko dunalarik!

GAXUXAK. – Ez daukat beraz eginik!... Erraiterat jina nintzen Mañuela hor dela andere Maji zer ari den jakin beharrez.

URXULAK. – Erron Mañuelari hunat sartzeko!

GAXUXAK. – Ez da urrun. Gibelean dut!

MANUELAK (*Urxulari beha*). – Jainkoaren mirakulua!

URXULAK. – Ikusten duzu Jainkoak madarikatu nuela! Haur bat eman daut!... Eta orai nahi daut kendu!...

MANUELAK. – Aña gaixoa, xifritua dago, nigarrez!... Andere Maji, zato, Jainkoaz laster haurrarekin!


URXULAK. – Goazen denak elgarrekin haur maite hunen heltzerat bere ama gaixoari!... Bainan Aña sendatu bezain laster, hunat jinen dire biak gurekin bizitzerat!... Ez dea hala, Koxepa eta Xabina?... (*haurrari*). Ez dea hala muñuñoa? (*haurrari emaiten dio musu, ager-tokiko oihala jaustearrekin*).

GAXUXAK (*erraiteko astia baduela*). – Oraino mintzatzen ez jakinki eta haurrak azken hitza berel!... Zer izanen ote da gero?

L. LÉON.



MATTURINAREN GAPOINAK



MATTURINAREN GAPOINAK

(Ager-tokia: merkatuko xoko bat, karrika edo bide izkina bat).

- I -

Mariena eta Margarita sartzen ari direla.

MARGARITAK. – Nola hantua zaukun Maturina hori! ... Nola nor-gira gutua den!

MARIENAK. – Maturina? Nongo Maturina?

MARGARITAK. – Ezagutzen ahal duzu! ... Handibideko Maturina, Ttomas Konkor zenaren emaztea ...

MARIENAK. – Zer! Emazte eñul ezdeus hura? Doidoi hiru antzara mainguen zaintzeko on zen emazte hura?

MARGARITAK. – Hura eta bera! Duela zonbait hilabete ahaide mutxurdiñ xahar batek utzi diozka zituen guziak – ehun mila libera, diotenaz – eta geroztik gure Maturina gizagaizoak uste du munduan ez dela bera baino buru ernoagorik eta abilagorik ...

MARIENAK. – Hoinbertzetaraino ba!

MARGARITAK. – Hortan geldi balitz oraino! Jendearen, jende xehearen trufan baizik ez du onik gehiago...

MARIENAK. – Nortaz trufatu da hola?

MARGARITAK. – Denetaz! ... Azken azkenik nitaz ...

MARIENAK. – Hortaratu baituzu dudarik gabe zuhauk!

MARGARITAK. – Ez eta hasi ere!

MARIENAK. – Non noiz ikusi duzu bada?

MARGARITAK. – Ostion, horxet ... Okindegiko ate-aitzinean jarririk zagola, bi gapoin otarre baten barnean... Bi oren ibili ondoan karrikaz karrika bere gapoinak saldu beharrez eta ezin salduz, horxet gelditua da ... Badakizu zonbat galdetu dautan bere bi gapoinentzat?

MARIENAK. – Jainkoak daki ...

MARGARITAK. – Lauetan hogoi libera!

MARIENAK. – Debrientxo! Ez da guti gose gure Maturina ... Lauetan hogoi libera bi gapoin!... Denak kario dire, bainan halarik ere ...

MARGARITAK. – Erosi nahi nizkion, emaitza pollit plantako bat nahi bainioke egin norbaiti ... Bainan lauetañ hogoi libera! ... Ez baikire ba aberatsak... Nere moltsaren meneko bertze zerbait atxeman beharko ...

MARIENAK. – Zertan trufatu zaitu ordean?

MARGARITAK. – Eskuetan hartu ditut beraz haren gapoinak, haztatu behar nituela ... Ez dakizu zer atera dautan bere moko mehetik, halako irri trufa batekin: «Lauetan hogoi libera, gaixoa... arditik ez gutiago ... gapoinak dire gero ... Bertzela ere zu bezalako aho arruntek ez dute gapoinik jaten!» ... Ematzara... Bihotza tapatu zaut eta urrundu niz tuntik erran gabe, ahalgetua ...

MARIENAK. – Emazte higuina! ... Zaude, zaude... Auzia ez dauka ez oraino irabazirik ... Handian nausitu zauku, baina orai ikusiko jokoan nausituko zukunetz ... To! hain xuxen horra non heldu diren hanxet Franxiska... Dominika ... eta Kattalin ... Holako lagunekin hogoi-ta hameka eta esku dugu ... Goazen heien ganat eta nik errana nahi balin badute egin, uste dut gure Maturrinak ... To! behazul ... Ez dea hura horxet heldu dena?... Bai, bai ... laster, goazen laster, ez gaitu elgarrekin ikusi behar...

- II -

MATTURINA, *bakarrik*.

(*Besotik dilindan otarre bat bere gapoinekin, beso-pean parasola handi bat; bertze eskuan kadera bat ... kadera pausaturik jartzen da, otarra bere aitzinean.*)

Ai! eil! ai! ... Oren bat karrikaz karrika holako otarre pizua besoetan, akitzen dela gero jendea... Bederatzi orenak eta nehor ez dela ageri oraino! ... Zer alferrak karrikako jende hoik! ... Ez arima bat, ez gatu bart... Hanbat gaixto! ... gauden beha ... ez ote da hobe goizegi etortzea berantegi baino? ... Xo! norbait heldu ...

- III -

FRANTXISKAK. – Bazaude beraz!

MATTURINAK. – Bai, zu ere ibiiki!

FRANTXISKAK (*otarreari ohar-tuz*). – Ihizi ederrak dituzu hor?

MATTURINAK. – Uste nuke ... batere espanturik gabe urrun joan behar zinitazke ederragoen kausitzeko ... Ez dute iduri, baina hazta zaitzu hauk ... Hamar libera pizu dituzte...

FRANTXISKAK (*harrituta bezala, baina gapoinak Maturrinaren eskuetarik hartu gabe*). Errazu berriz? ... Nere ustez ez dut ontsa aditu ...

MATTURINAK. – Erran dautzut hamar libera pizu dituztala ... goiz huntan pizatuak! ...

FRANTXISKAK. – Aztapar bakotxean harri bat emanik dudarik gabe ... harri eder bat?

MATTURINAK (*kexatzen ari dela*). – Zer diozu? ... Oraikoa nik dut ez ontsa aditu ...

FRANTXISKAK. – Etzaitela kexa, emazte gaixoa ... mintza gaiten polliki ... Ez dut erraiten ez direla ederrak, gezurra nuke ... bai, ederrak dire, ezin ederragoak ... Eta borts liberetan nahi badaizkidatzu utzi ... Ori zu zirelakotz eta denborarik ez galtzeko emaiten daukitzut borts libera eta borts sos ... Erran bezala beraz, borts libera eta borts sos eta eramaren ditu. (*Gapoien hartzerat doa*).

MATTURINAK (*kexu kexua*). – Irri gose balin bazira edo jendeaz trufatu nahi, merkatua da egun eta jende hanitz kausituko duzu xerri portuan ... Al ageri duzu ez nuzula ezagutzen, Handibideko Maturrina ez duzula ezagutzen ... Ezagutzen nutenek erranen dautzute ez nizala zozoa eta pikaren azken umea ... Zoazi bistatik... Behazue hunen kopeta! ... Borts libera eta borts sos gapoin pare bat, ditazken gapoin ederrenak ... Sei hilabeteko erri baten bazka behar bainuen kasik hoi bazkatzeko! ...

FRANTXISKAK (*luzaz behatzen diola begitarte penatu batekin*). – Oi Jainko

maite maitea! ... Emazte gaixo gaixoa! ...

MATTURINAK (*gero-ta kexuago*). – Zer derasazu hor, emazte gaixo-ka! ...

FRANTXISKAK. – Zin zinez urrikari zaitut, bai ontsa urrikari ...

MATTURINAK. – Ez du balio! ... Jainkoari esker badu osagarria, bai eta nere lanetik egin etxalde bat joria ... Ikusten duzu ez nizala urrikaitezkoa ...

FRANTXISKAK. – Bainan, emazte dohakabea, zure osagarriak eta etxaldeak ez dute deus egitekorik huntan ... Erraiterat bortxatzen nuzunaz geroz ... hanbat gaixto, erranen dautzut ...

MATTURINAK. – Errazu bada ...

FRANTXISKAK. – Barkatu, bainan ... edo itsua zira ... edo ... edo burutik joana ... (*Alegia kexu*). Beha zazu, doakabea, behar zazu bada ... Gapoinak dire ihizi hoik? ... Errazu, gapoinak dire? ... Ez da haratik ez hunatik, itsua zira segur ...

MATTURINAK. – Ni itsua! ... Ez, Jainkoari esker begi onak ditut oraino... Baina zure arabera zer dut bada nik otarre hortan!

FRANTXISKAK. – Zer duzun otarrean? ... Ez duzu ikusten urso pare bat duzula hor ... Urso ederrak, gizenak, bainan ursoak eta ez gapoinak ... Eta iduritzen zitzautan bortz libera bortz sos...

MATTURINAK. – Askil! ... Askil! ... Egia zinion ostion, emazte gaixoa: bada hemen itsubat, itsua zu zira ... (*gero-ta gorago mintzo dela*) ... Ursoak?... ursoak nere gapoinak? ... Ha! ha! ha! utz nezazu irri egitera ... Eta kontseiluño bat nahi balin baduzu nik emanik, zure bortz libera eta bortz sosekin zoazi laster pare baten erosterat ...

- IV -

(*Matturina mintzo delarik oraino, etorri da Dominika*).

DOMINIKAK. – Zer da kalapita hau? ... Zer duzue biek hola oihuka? (*Matturina ezagutzen duela*). To! zu Matturina hemen? ... Goizik etorria zira merkatura ... (*Otarreari beha*). Zer urso ederrak dituzun hor! ... Saltzeko dituzu? ... Azken merkatuan izigarri kario ziren ... Segur niz, batere gezurrik gabe, bortz liberetan, edo beharbada sei liberetan atxemanen duzula erosle ...

MATTURINAK. – Niri burua zozo-arazi beharrez ari zaitze naski biak ... (*Dominikari*). Zer derasazu zuk ere? ... Oraixet emazte huni niona, ez balin baduzu ontsa ikusten, emaitzu lunetak ... Beha zazue bada ihizi hoier ...

DOMINIKAK ETA FRANTXISKAK (*batean*). – Ikusten ditugu, ikusten ...

MATTURINAK. – Eta beraz?

DOMINIKAK. – Ederrak dire, ez da erraiteko (*gapoinak haztatzen ditu, otarrean daudelarik*) ... Egia erran, ez dituzu goizean biziki hanpatuak pizuaeren emandatzeko ... Papoa hutsa dute ... hera ere ai ... eta (*gapoinak eskuetan hartzen dituela*) ... bai, iduritzen zitzautan bai, begiez haztatuak nituen jadanik ... pizu dituzte bi libera segurik ...

MATTURINAK (*gorri gorria kexu*). – Bi libera? Burutik baduzu? ... Hamar libera pizu dituzte, goizean pizatuak ... Zoazte biak antzara ferratzera ... zuen ursoekin astafña-araziko nuzue...

DOMINIKAK. – Ez kexa, otoi, Matturina ... Ez du balio oihuka artzea ... Zure oihuek bilduko dute jendea huna ... eta ezagutzen etzaituztenek, zure oihuak entzutearekin, usteko lukete ...

MATTURINAK. – Zer usteko lukete?

DOMINIKAK. – Jendeek entzuten balin bazaituzte zure ursoak gapoiak direla erraiten, usteko dute ... Xortaño bat sobera edana duzula...

MATTURINAK. – Mozkorra nizala?

DOMINIKAK. – Hala erran lezakete segur!

MATTURINAK (*Kexuarekin gorri-belztua*) .– Mozkorra? ... Ni mozkorra? ... Tripa hutsa oraino eta ni mozkorra! ... Sekula urik baizik ez edaten eta mozkorra! ...

DOMINIKAK. – Ixo! Ixo! Maturina ... Hola oihuka artzeak egarri emaiten du ... eta ... Ikus arte ... agian ontsa salduko dituzu zure urso-gapoinak ... (*Dominika eta Frantxiska ateratzen dire*).

- V -

(*Maturina jartzen da, gapoinak bere aitzinean, burua apal ... ixilik dago apur bat, gogoetatua...*)

Ez ditakena da hori! ... Norbaitek xarmatua nau segur ... Sorginkeria edo debrukeria zerbait bada hori! . Baina debruak nahi ala ez nahi, ez ditut ursok ekarri nik etxetik ... Ez, ez! Non hartuko nituen nik ursoak? ... Ez dugu eta ursorik ez ursotegirik ere ... (*sakelak ikerturik, luneta pare bat ateratzen du, ezartzen eta otarrea altzoan emanik*). Ursoak hauk! ... Sekula santan urso izan ere ... Marra hori hor, buruaren erdian, nihauk moztu kukurustaren marra ... Eta behatz hoik, aztapar azkar hoik! ... Luma luze hoik ... Nehork ikusi du behin ere holako buztan ederreko ursorik? ... Ez nago lo bederen! ... Ez naiz ametsetarik ari! ... (*gapoinak hartzen ditu eta eskuan dauzkala besoa luzaturik*) ... Bi libera dituztela pizu! ... Bi libera eta doi-doi atxikitzen ditut besoaren beso ... (*besoa apaltzen duela*) Ouf!... Ai! zorigaitza! Bai, zinez debrukeria zerbait bada hor ... Gapoin hauk ursoak direla bi emazte hoiek erraiteko, zerbait sorgin behar da... (*urrats bat aditurik, burua itzultzen du*)... To! huna Kattalin ... Ez da hau emazte hintz-untzi haietarik ... Niri erosten dauzkit arroltzeak merkatu guzietan ... Nehork erraitekotz, hunek erranen daut egia ...

- VI -

(*Kattalinek egiten ditu zonbait urrats, gelditzekoa ez balitz bezala ...*)

MATTURINAK (irriño batekin) . – Adio, Kattalin ... Zer! Gisa hortan bazoazi deusik erran gabe! ... Ez nuzu bada ezagutu?

KATTALINEK. – Nork etzaitu ezagutzen, Maturina! ... Baina barkatu egungotz... ez dut eleketara egoiteko aizinarik ...

MATTURINAK. – Minutaño bat, Kattalin... Eian! beha zadazu ontsa!

KATTALINEK. – Zuri beha? Zer mirakulu duzu bada? ...

MATTURINAK. – Handibideko Maturina naiz ni? ...

KATTALINEK. – Dudarik baduzu! ... Segur Handibideko Maturina zirela ... Baina berriz ere barkatu ... joan beharra naiz ... Uste gabeen etorri zaizkit hamar bat bazkaltiar, hamarrak hagin zorrotzak, eta oraino ez dut dupina baizik suan ... To! orain oroitzen bainiz, ohartu zira Olagaineo Katixa etorria denetx merkaturat? ... Zer gerta ere, baniozkan bi gapoin galdetuak joan den astean ... Ikusi behar dut ekarri dituenetz ... Erreki hanitz beharko dutela gero nere hamar bazkaltiarrek ... Eguerdiko nahi badut nere bazkaria apaindu, nere gapoinen hiltzeko, lumatzeko eta gerrenean ezartzeko ordu dut ...

MATTURINAK. – Eta ... gapoinak nahi zinituzke?

KATTALINEK. – Hoik? ... Ursoak! ... ontsa ederrak, ontsa gixenak ... hamar bazkaltiarrentzat gutixko baitire ... Berriz arte, Maturina, berte aldi batez eginen dugu tratu ... (*Badoa Kattalin*).

- VII -

MATTURINA, *bakarrik*.

Oi, zeruko Ama ona! Naizen bezalako dohakabea! ... Gaixo ni! ... Gizagaixo ni!... Ha! ikusten dut oraikoan, sorgindu nute ... Banaki bederen nork! ... Zer egin, Jainko maitea ... Zer egun tzarra hau! ... (*berriz ikertzen dituela bere gapoinak*)... Ala xede, bai eta naski egia diote bertzeek ... Nere gapoinak ... Batere ez dakit ez gero! ... Orai hobeki behatzearekin, iduritzen zaut ez direla nik goizean ekarri hek ... eta ursoak direla ... Denek hala diote eta betidanik sei begiek biek baino hobeki ikusten ... Debruak neramala, etxerat itzultzen balin baditut nik ihizi sorgin hauk ... Ez, nahiago ditut hemen berean libratu ... doazila nahuten tokirat ...

- VIII -

(*Maturina sokaren mozterat doalarik bere gapoinen libratzeko, etorri da Margarita*).

MARGARITAK. – Zer! oraino hor! ... Ez ditutzu salduak?... Eta kexu hura joan zautzu azkenean? ...

MATTURINAK. – Ez nintzan kexu!

MARGARITAK. – Ostion bazinuen haatik zerbait, errazu! ... (*Maturina bezala mintzo dela*)... Gapoinak ez dire pobreen ahoarentzat! ... Oroit zira! ... Zer, johan zautzu, eroslea izan dadin pobrea ala aberatsa, pagatzen balin bazaitu ... Gure sosak ez ote du aberatsaren sosa balio? ... Ikusten duzu ez nizala tematsua ... berriz heldu naiz ... Eian! kalapitarik gabe, zonbat nahuzu zure ursoentzat?

MATTURINAK (*umilik*). – Bortz libera eta bortz sos ukaiten nituen ostoin . Sei libera ere eginen ahalko nituela erran dautate ...

MARGARITAK. – Orizu beraz zure sei liberakoa...

MATTURINAK. – Milesker! ... Eta ez adiorik ... (*Dirua sakelan emanik, kadera, otarrea eta parasola harturik, badoa bixi bixia*).

- IX -

MARGARITAK. – Laster badoanetz!... Behazue, behazue ... Uste du bai naski zerbait sorgin baduela ondotik ... (*Gapoinak erakutsiz*) ... Zer gapoin ederrak! ... Seiliberetan, ez dire kario! ... (*Oihu egiten duela bere laguner*) Hun !!! ... Zatozte, zatozte ... (*heldu dire bertzeak*) ... Zakuan sartu dugunetz gure Maturina! ...

MARIENAK. – Zuk errazu! ...

DOMINIKAK. – Bere ahaide xaharrak utzi diruak ez du hanbat abildu! ...

FRANTZISKAK. – Izaitekotz ere hak kendu dio azken pirua ...

KATTALINEK. – Eta ... zoin ederrak diren haren gapoinak! ...

MARGARITAK. – Ez ditu saldu, nahi bezain zalu oraino! ... Tratua laster egin

dugu ...

KATTALINEK. – Oroituko ahal da luzaz guk eman erakaspenaz, pixka bat hobetzeko.

FRANTXISKAK. – Bai, eman diogu erakaspen eder bat ... bainan ez baitugu gurea ez dena atxiki nahi... Behazue nola doan hanxet bizkarra makurtua... Egin dezogun oihu ...

GUZIEK. – Maturina! ...Maturina! ...

MATTURINAK (*urrunetik*). – Zer da?

MARGARITAK. – Zato zure gapoinen bila ...

MATTURINAK (*toki beretik*). – Tratua tratu ! ... Akabo, akabo! ...

MARGARITAK. – Bainan, emazte xoroa, gapoinak direla!

GUZIEK. – Gapoinak ba! ...

MATTURINAK. – Hobe, hobe segur! ... On dakizuela! ...

MARIENAK. – To! horra pollitena!

L. LÉON.



TTOMAS EZKONGEI



TTOMAS EZKONGEI

Ager-tokia barne bat, arruntenetarik: bi kadira, mahain bat, armairu bat ...

KATTALIN, *Ttomasen andregeia,*

MARIHANDI, *Ttomasen ama,*

PAXKALINA, *Ttomasen izeba,*

ANES, *Kattalinen ama,*

URXULA, *etxeko sehia ,*

GAXUXA }
MARIXUME } *auzoko sehi batzu*

- I -

Urxula barnearen garbitzen ari jats bat eskuan...

Agertzen da Gaxuxa atean

GAXUXAK. – Bakarrik?

URXULAK. – Omen ... Etxekandreak jalgiak bide ditun ... Karrikako atea aditu dinat segurik hesten.

GAXUXAK. – Hobel... (*sartzen da*) Erran, Urxula, egia ote da jendek diotena?

URXULAK. – Bainan , Gaxuxa, nik ez zakinat zer dioten.

GAXUXAK. – Zuen Ttomas ezkontzen dela?!

URXULAK. – Ontsa zakinat no, nik.

GAXUXAK. – Erraiten ahai dautan bai ... niri.

URXULAK. – Nik ere, hik bezala, kanpo hoietan aditu dinat ... joanden igandean Mezatik ateratzean ... Hum! ezkontzen balin bada, ezkont bedi; niri berdin zautan ... Ez dinat segur senartzat nahi! ... Hik nahi badun...

GAXUXAK. – Ha! ez ... sobera zaharra dun ... eta itsusia ...

MARIXUMEK. – (*arrabotsik gabe sarturik*). Urxula, egia dun Ttomas ezkontzen dela?

URXULAK. – Hik ere! ... Ontsa hortan duzue burual Ttomas ezkontzen denetz etzakinat batere ... Zer uste dun, etxekandreek hemengo berri emaiten dautatela? ... Gauden beha! ...

GAXUXAK. – (*sartuz geroz kasik, sudurra zimur, usainka*). Ez duzue deusik senditzen zuek?

MARIXUMEK. – Bai ... usain tzar bat.

URXULAK. – Ago ixilik, otoi . Oren erdi huntan erotua nabilan nondik zer den usain hori ... Armairu hortan ote den!... Bainan habil jakiterat ... Uste balin badun gakoak eskuko ditudala etxe huntan ... Aise! ... Zerbait ebasten banu! ... Xo! ... eskalapoin arrabots bat ... Hek ditun! ... Zoazte otoi, xahu nun hemen kausitzen bazaituzte ... (*Gaxuxa eta Marixume abiatzen dira ate bati buruz*). Ez hortik, buruz buru eginen baituzue

heiekin ... Hemendik, hemendik, laster ... (*bertze ateari buruz igortzen dituelarik, karrikako atea jotzen du norbaitek ... Badoa Urxula eta gibelera heldu letra bat eskuan: oraino atearen gainean diren Gaxuxa eta Marixumeri oihu egiten diote*). Zatozte, zatozte...

MARIZUMEK. – Etzitunan hek ... Letra bat ekarri dine berriz ere, hirugarrena aste huntan ... eta hau ere lldohitik ... Tinbreak onak ditun dudarik gabe edo bertzetan baino merkeago herri hontan hoinbertze letra igortzeko! ... lldohitik heldu zaukun bai naski gure andregeia ...

GAXUXAK. – Ikisi letra (*hartzen dio eskutik*) ... Hala dun, lldohitik heldu dun... No! uste ninan Ttomas buruz zela ... Andre Paxkalinarentzat dun, Ttomasen tantarentzat ... Zer ote dio gure lldohiarrak? ...

(*Letraren idekitzerat bezala doa*).

URXOLAK. – (*eskuetarik kentzen diola*). Nahuna hortik! ... Zer johan zaun barnean duenak? ... Errana dautan berdin ez hukela Ttomasik nahi ... Marixumek beharbada?

MARIXUMEK. – Ez eta urririk ere! ... Bere sudur kakolarekin...

GAXUXAK. – Ontsa parekatuak zitazken beraz!

MARIXUMEK. – Andregeia ezagutzen dun?

GAXUXAK. – Ez, bainan joanden merkatuan jakina dinat ez dela pollitenetarik: tipito bat omen dun, biribil, torropilo bat ... bezala emana ...

(*arabots bat kanpoan*).

URXULAK. – Hek ditun oraikoan ...

MARIXUMEK. – Goazen, Gaxuxa ... Erran bezala, Urxula, bertze aldian emanen dauzkun gainerateko berriak ...

(*Gaxuxa eta Marixume badoazilarik, karrikako atea ideki da eta hotsi ... solasean norbait gordetokian*).

- II -

URXULA, *bakarrik*. – Ez, ez! ... Ez naiz segur zahartuko etxe huntan! ... Jainko maitea, zer infernua! ... Lanak egiten ahal nahi bezain ontsa, beti kexu ditut emazte hoik ... Marihandi, Ttomasen tanta, lapar sadi bat ... eta zuhurra, zuhurra! Edaten dugun ura bera sobera zaio! ... Ez omen dugu gatzarena ere irabazten! ... Nardatua naiz azkenean, beren urin karantzuarekin, beren arno ozpinduarekin ... aho guzia joan! (*Paxkalina bezala mintzo dela*). «Arras ona da arno hau ur xorta batekin... Urak pollitzen din jendea» Ez naiz aski pollita jadanik? ... Behazue! ... Ttomasen ezkontzerat abian omen dire ... jendeak hala diote segurik! ... On daikola! Ez ahal da nehon ez dena, tokilo hori hartu nahu duen mutzurdina ... Ttomas! ha! ha! ha! pika buztana bezain zozoa, okilotsua, sudur kakola... Har dezala nahi duenak! ... Ni hasteko, ezteiak egin bezain laster – egiten balin badire – banoa hemendik! ... (*Usainka ari dela*). Bainan zer sorgin da usain hau! ... Garratoin bat hor nonbait hila nik uste ... (*Kanpotik norbait oihuka: Arxula! Arxula!*) Aditzen duzue gure Marihandi? ... Egin dezagun ez adituarena ... Nere izena ez da Arxula, ehun aldiz errana diot, bainan Urxula ...

- III -

MARIHANDIK. – (*sartzen dela*). Gogortua haiz? ... Oren batoihuka ari naunela! ...

URXULAK. – Niri?

MARIHANDIK. – Hiri bai! ... Ez huen aditzen?

URXULAK. – Ez.

MARIHANDIK. – Gezurtia!

URXULAK. – Aditzen nuen bai norbait oihuka ...

MARIHANDIK. – Eta ez huen ihardeste ahal?

URXULAK. – Arxula! Arxula! ari zen norbait, bainan hemen ez da Arxularik! ...
Urxula dut izena nik, Urxula! Erradazu Urxula eta orduan zure zerbitzari.

MARIHANDIK. – Zoin xorua haizen, neska! ... Gaixoa, ez bahaiz erneagotzen,
ez dun sekula senarrik atzemanen.

URXULAK. – Utz zazu hori nere gain ... Ttomasen ezkontzeko, badukezu segur
lanik aski eta sobera ... Ez naiz ni, hura bezala, hogoi-ta hamasei urten
beha egonen ezkontzeko!

MARIHANDIK. – Nork erran daun, no, Ttomas ezkontzen dela? ... Hal zer hago,
gure solaseri barrandan zoko guzietan? ... Eta dena dela, erran ez dela
mutiko pollita?

URXULAK. – Dena zu!

MARIHANDIK. – Prestua, gisakoa, bildua! ... Alderat etxean, sekula ez
ostatuan...

URXULAK. – Dena zu berriz ere, etxekandrea, eta dena tanta Paxkalina ... Ez
duzu segur ukatuko!

MARIHANDIK. – Ez nahi ere ukatu! ... Bainan zendako gal oren bat hirekin
kalapitan? Gure harat-hunatez burua berotua artzeko orde, hobe huke
barne hunen garbitzea ...

URXULAK. – Egina dut.

MARIHANDIK. – Egina? ... Eta armiarma sare hek gain hartan? ... (*Erhiaz
marratzen duela mahaina*). Eta errauts hau mahain hunen gainean?

URXULAK. – Errauts hori! ... Errauts hori!... Norbait behar du horrek ere ...
Nere jatsak gaineko errautsa beti beheiti igortzen daut eta beherekoa
goiti.

MARIHANDIK. – Zer burua dunan haatik! ... Sekula ez dun lan baten egiten ika-
siko ... Guk eman soldata ebasten dun ...

URXULAK. – Ez duzue gizen emaiten!

MARIHANDIK. – Eta jaten dunana?...

URXULAK. – Ortziraleak usu dire etxe huntan!

MARIHANDIK. – Eta edaten dunan arnoa?

URXULAK. – Enseladarentzat hauta!

MARIHANDIK. – Bahu beti holakotik, moko zuria!... Eta nik hiri eman zapata
hek, berri berriak kasik...

URXULAK. – Hala da! ... Zure ahizpak erran daut arras onak zirela zolerdikatu-
eta ...

MARIHANDIK. – Zer erraiten naunan?

URXULAK. – Bai, bainan beretzat atxiki ditu ...

MARIHANDIK. – Hori ez nakinan!

URXULAK. – Orai jakinen duzu ...

MARIHANDIK. – Ontsa dun ... Habil sukalderat ... Su handi bat pitz zan, heldu
nun ...

URXULAK. – To, to! Norbait esperantza duzue naski?

MARIHANDIK. – Ez dun hire ikustekoa!

URXULAK. – Eta... delakoak hemen bazkalduko dire?

MARIHANDIK. – Beharbada!

URXULAK. – Urrikari ditut ...

MARIHANDIK. – Zer erran dun?

URXULAK. – Uria ari denetz ... (*Ateratzerat bezala egiten du*) ... Oi ama! ahazter dut ... letra bat badut zuretzat ...

MARIHANDIK. – Letra bat eta ez hauntan berehala emaiten ahal? Habil ... eta Paxkalina selauruan baita, erron abian jiteko.
(*Urxula badoa*)

- IV -

MARIHANDI *bakarrik*. – Letra bat? ... Ttomasen andregaiarena ... Zer ote da berri? ... Nere ahizpari buruz igorria da ... Dudarik gabe ni ez konda, ni deusik ez ... Alta Ttomasen ama ni naiz eta ez nere ahizpa? Eta futxo! onartu behar ... burua apaldu behar ... hura da hemen etxekandre! Harena da Etxea!

- V -

PAXKALINAK. – Zer da? ... Ez hintazken harat etor hi?

MARIHANDIK. – Letra bat badun hiretzat. (*Emaiten dio*).

PAXKALINAK. – Zer dugu berri oraino? (*Letra irakurtzen du*) ... Hau pollita diagun!... Herenegun heien beha egon eta gero nehor... hoinbertze xahutu ondoan ... Eta orai egun heldu direla Begigorrin otobusean ... Hain xuxen Ttomas ez etxean... Heldu direnaz geroz, bazkaltzerat eman behar ... Ago! zer diote hemen berriz! ... Beharbada ez direla jinen ... Gaixoak, ez ditun soberarik trenpuan biak ... biak arras mafrundi ... (*Letra sakelari emaiten duela*). Erran, Marihandi, uste dun etorriko direla?

MARIHANDIK. – Ontsa zakinat no nik!

PAXKALINAK. – Ontsa zakinat! ... Hori dun ihardestea?

MARIHANDIK. – Zer nahi dun bertzerik erraitea? Etzakinat etorriko direnetz! ... Heldu badire, etorriko ditun ... Ez badire heldu, ez ditun etorriko!

PAXKALINAK. – Ez duken buruko minik, hori atxeman sari! ... Hoik hola, herenegun erosia nuen haragia usaintzen hasia zaikun bero hunekin ...

MARIHANDIK. – Utz zan otoi haragi hura bere gisa ... etxe guzia usaindurik zaukan ... Ez dun senditzen?

PAXKALINAK. – Aise mintzo haiz hi! ... Ageri dun ez dunala hire sakelatik erosia, eta mintzo haiz, mintzo haiz jazko haizea bezala.

MARIHANDIK. – Bainan, dohakabea, zer nahi dun egin haragi hartarik? Usain bat badin, usain bat ... Hurbil hakio ...

PAXKALINAK. – Ta, ra, ra, ta ... jan zitaken oraino.

MARIHANDIK. – Zer gaitun, denak pozoindatu nahi?

PAXKALINAK. – Bainan, gizagaixo Marihandi, hik ez dun uli baten kaskorik! ... Zer dio letrak? ... Kattalin eta hunen ama mafrundi delarik, sudurra tapatua dela eta deusik ez dela senditzen ! ... Ikusiko dun gure haragia hauta kausituko dutela.

MARIHANDIK. – Nik hasteko ez dinat hunkiko ere, nahiago nuken goserik egon edo ogi hutsean.

PAXKALINAK. – Behozue miliska huni! ... Hemendik goiti bazakinat zer egin: oilasko ixter eta hegalez aseko hitugu edo eper zango gorritz ... (*haserre*)

dela). Badirakenetz haatik!

MARIHANDIK. – Ez din kexatzea balio ...

PAXKALINAK. – Zendako kexa arazte nun hire zorokeriekin? Sobera erranen baitaunat hemen egonez, banoan sukalderat kafe ttotta baten hurrupatzerat ... Atzoz geroz barur nun ...

MARIHANDIK. – Ni ere bai.

PAXKALINAK. – Eman lehenik barne hau plantan eta gero ekarriko daunat nihauk hire kafea.

MARIHANDIK. – Azukraturik ekarran gero ...

PAXKALINAK. – Bai, neskatoa, bai ...

MARIHANDIK. – Hiru azukre puska emazkin!

PAXKALINAK. – Hiru? ! Lau, bortz, sei, nahi balin badun.

MARIHANDIK. – Ezagutzen hut ba, nahiago dinat nihauk azukratu ... Azukre untzia ekarradatan...

PAXKALINAK. – Bai, bai, hiru! (*Abiatzen da kanporat*)

MARIHANDIK. – Hiru azukre puska?

PAXKALINAK. – Ez hiru azukre untzi.

- VI -

MARIHANDIK *bakarrik*. – Nere errengaia zoin ikusi nahia dutan! ... Ez dut ezagutzen oraino ... Paxkalinak ikusia baitu merkatuan, etzuen hartaz espanturik aski: «Gizenxkoa bai, biribilxkoa, bainan batere ez dun gaizki; mattela gorri gorri batzu, bilo gorraxta bat ... Gure Ttomasek ez din hura baizik nahi ... Iragan bestetan ezagutua dine elgar » ... Hala da ... oroit naiz arrats hartan Ttomas etxerat etorri zelarik, zer erran zautan: «Ama, ez balin banaiz harekin ezkontzen, hilen naiz.» Ni aldiz nigarrez ... Gaixo haurra hiru egun oso egon zen ohean eri... «Sendo hadi , nere haurra, sendo hadi laster; hogoi-ta hamasei urtetan ordu duk segur ezkontzeko... Tanta Paxkalinak ere onartuko dik, ago deskantsuan.» Hola altxatu nion bihotza ... (*Apur bat ixllik egon ondoan*). Bertze gauza batek ere atsegin egiten da: nere errengiak Kattalin du izena ... Kattalin, ez da gaitz izen horren ikastea! ... Izen pollita, ahoa gozatzen duena ... Deitu nahiko dutalarik, askiko diot oihu egitea: Kattalin! Kattalin!... Izen goxoa ... Arxulaz bertzerik da ba ... Hori izen bitxia! Funtzean bera ere kexatzen da, oihu egiten diotalarik ... Zein itsusia den izen hori! Beha: Arxula! Arxula! ... Eta hori baino itsusiago oraino berak nahi duen izena: Urxula! Urxu-la! ... Ahoa joan nahu du izen horrek ... Xakurrak ere ihausika has litazke izen biti hori aditzearekin: Urxula! Urxula!

- VII -

URXULAK. – Badantzut! ... Huna! Huna!

MARIHANDIK. – Zer dun errangura?

URXULAK. – Deitu nuzu ... zerbaitetako dudarik gabel

MARIHANDIK. – Hoakit, hoakit hemendik ... Ez hut deitu nik ...

URXULAK. – Ez naiz bada ametsetarik ari ... Ez duzu nere beharrik? Hobe ... Ez naiz segurki gogotik heldu barne huntarat ... Zer usain tzarra! Garratoin hil bat bada nik uste armairu hortan usteltzen ari ... Banoa, banoa, bihotza itzulika ari zaut jadanik ...

MARIHANDIK. – Ergela ez bertzea!
URXULAK. – Pul zikin! Zer usaina!
(*Badoa sudurra tapatuz*).

- VIII -

MARIHANDI, *bakarrik*. – Neska zirtzil hori barrandan dago ate guzietan ... Ez diot oihu egin nik ... Ez du gezurra haatik usain tzar bat badela hemen... gure hereneguneko haragia! Paxkalinak nahi duena erranikan ere, haragi ustelik ez da mahainerat emaiten ... Kattalinek jaten balu eta gero eritzen balitz, non ginitazke? Gaixo Kattalin! Maite dut jadanik nere alaba bezala ... To! orai oroitzen bainaiz, nere senar zenak gure espos bezperan erosi petentak emanen diozkat ... (*begitarte* hits). Alargundu nintzalarik, kenduak ditut soinetik, hogoi-ta bortz urte baditu jadanik ... Jainko maitea urteak zoin laster doazin! ... Hogoi-ta bortz urte nere Batistun galdua dutala! ... Oroitzapen horrek min egiten daut ... horxe tripan ... Eta tripa hutsa duala! Zer ari zaut Paxkalina nere kafea ekarri gabe? (*Oihu egiten duela*). Paxkalina! Paxkalina! Nere kafea!

- IX -

PAXKALINAK. – Zer dun hola oihuka? Hire oihuak ageri ditun auzoraino! ... No, horra hire kafea!

MARIHANDIK. – Zer haiz berriz ere kexu?

PAXKALINAK. – Badun zeren... asko jendeak hobeko luketen ixilik egoitea!

MARIHANDIK. – Zer erran nahi dun?

PAXKALINAK. – Gure Ttomasen ezkontzaz baizik ez direla mintzo zoko guzietan ... nondik jakina ote dine? Doidoia oraino sukaldeko leihotik aditua dinat Geaxene Kalaka, bere mustaxa handiekin, erraiten ...

MARIHANDIK. – Zer?

PAXKALINAK. – ... gure Ttomasek berrogoi urtetan ezkontzeko ordu zuela egitekotz ...

MARIHANDIK. – Hogoi-ta hamasei urte baizik ez ditin ...

PAXKALINAK. – ... eta ez bide dela hanbatekoa tokio hori hartzen duen neska...

MARIHANDIK. – Hol! tokiloa erran din gure Ttomasentzat?

PAXKALINAK. – Eta irriz zaflaka ariz oraino, ema tzarra! ... Bainan hik ere zer dun niri hola behar? Edazan bada kafe hori laster, nere laguntzerat jiteko... Begigorrin otobusa ez ahal dun urrun eta egiteko frango badiagun oraino ... Erna hadi hortik!

MARIHANDIK. – Azukre untzia non dun?

PAXKALINAK. – Azukratua dun!

MARIHANDIK (*kullerarekin ikertzen duela*). – Ez din hainbat iduri!

PAXKALINAK. – Ba ahal dakin oraiko azukrea ez dela azkarra eta eman orduko urtua dela ... hiru puska eta erdi baditin ...

MARIHANDIK. – Hiru puska eta erdi? Ez ahal dun egungo hire lehen gezurra hori! ...

PAXKALINAK. – Behozue zer kopeta! ... Oraino jastatzekoa eta jadanik errangura!

MARIHANDIK (*xorta bat edanik*). – Hol! la la! Hol! la! la! (*brau xutitzen da*).

PAXKALINAK. – Zer dun orai berriz?

MARIHANDIK . – Irakitua dun kafe hau!

PAXKALINAK. – Zer mirakulua! ... Oren erdi huntan suaren gainean zunen! ...
Ufa zan, hozkuko dun bai.

MARIHANDIK (*luzaz eta azkarki ufaturik, bertze xorta bat edaten du bainan laster pausatzen oporra mahainaren gainean*). – Ez, ez sobera beroa dun... ezin edana!

PAXKALINAK (*kexu-kexuan*) . – Zer den haatik kasko gogorra izaitea!...
(*Marihandi ohartu gabe ere, hartzen du oporra eta klikako batez husten*).
No! horra zoin beroa zen; ikusi dun? ... Mandoak ere ez din hik bezalako kasketa ... Beroa zela kafe hori!

MARIHANDIK (nigarrez) . – Bai eta orai, gabe gelditu behar ni! ...

PAXKALINAK. – Hanbat gaixto!

MARIHANDIK . – Oi Jainko zerukoa! Zoin dohakabe naizen! ... (*xutiturik deblauki*)
Ha! hori dun! Nihauk eginen dinat bertze xorta bat (*urrats bat egiten du sukalderat buruz*).

PAXKALINAK. – Ago hor hi! ... Eguerdiko doia diagun nonbait han ...
Urxularentzat xorta bat utzia bainuen, har zan hura, nahi balin badun ...
Erran behar daunat haatik kafe baino gehiago ur baduela...

MARIHANDIK . – Bazitaken ba! ... Bainan berdin din, den bezala hartuko dinat bero-arazirik ...

PAXKALINAK. – Hotzik hobe dun, ez haizenaz geroz berokoa.

MARIHANDIK . – Arras hotza ere etzautan laket ... Eta ahulxkoa baititake,
azukratuko dinat ausarki ...

PAXKALINAK. – Azukratua dun aski eta sobera ... eta gero azkenean nardatzen nun ... Utz zan xorta bat Urxularentat, barura baita hura ere ... Bainan zer ari haiz hor tente potente? Habil, otoi, kexatuko nun bertzela ... Banoan ni oheen egiterat (*badoazi biak*).

MARIHANDIK (*berehala etorririk bere oporra eskuan, hurrupa bat edaten duela*). – Brrr! ... deusen gosturik ez du gaztena-ur hunek!... Hunek ez du ez kaferik ez azukrerik ... Paxkalina zikoitz horrek denak gakoiz ditu eta gakoak sakelan ... Ha! ez nindazke luzaz egon etxe huntan, nere Ttomas h or ez banu... (*kanpoko ateari norbait joka*). Zeruko ama! hek dire sekulakotz, Kattalin bere amarekin! (*bere oporra pausatzen du mahainaren gainean eta badoa ... Arte hortan Urxula sartu da zare bat eskuetan*).

URXULAK. – To! Behin bederen ez naute ahaztu! ... Zoin gixakoak diren haatik egun; ageri dute norbaiten beha daudela. Nere kafea hemen, edatea aski (*usaintzen du kafea eta, hurrupa bat edanik, sudurra ximurtzen*). Ho! la la! haxe da gauza tzarra! Etxe huntan ez dakite bertzerik egiten (*edaten du dena eta oporra pausatzen*). Barne azkarra behar dela gero holako pozoinaren iresteko ... bai eta hemengo usain ustelaren jasaiteko ... Brrr! (*badoa*).

MARIHANDIK (*kasik abian sarturik, kexu*). – Haizu denetz haatik ateari hola panpaka artzea! ... Gizon bat zikinak jana horxe, trapu tzarrik baginuenetz saltzeko! ... Atrebitu tzarra! Ez du bietan galdatu, ori! ... Usuxko hetsi diot atea sudurrerat. (*Bere oporra eskuan, hurbildurik*). Zer da sorginkeria hau! ... Nere oporra hur-sa! ... Ala edana dut? ... Trapu biltzale herrement horrek burua gal-arazi daut ... Edana nuen bai naski ... Batere ez naiz oroit ... Tripa segurik ez daut hanbat berotu... Ho! eta xortarik ez dut utzi Arxularentzat... Hanbat gaixto! gabe egonen da; gaztea baita eta zaila, behartuko zaio.

- X -

PAXKALINAK. – Kafea edana dun?

MARIHANDIK. – Etzakinat.

PAXKALINAK. – Beroa huenala hotza?

MARIHANDIK. – Etzakinat.

PAXKALINAK. – Etzakinat! Etzakinat! Nork zakin bada, hik ez badakin? Nere kexa-arazteko jeikia haiz naski egun! Kontseilu on bat nahi badun nik emanik, bertzela joka hadi gero egun segurik Kattalin, Ttomasen andregaiarekin.

MARIHANDIK. – Ago deskantsuan, Paxkalina, ez dun nitaz erranguratuko Kattalin, hik bezanbat nahi baitut Ttomas ezkondua ikusi... Ez ditudanetz xede onak haren alderat, nahi ziozkanat eman nere senar zenak duela berrogei urte erosi petentak... Zer dion hortaz hik?

PAXKALINAK. – Berriak erosteko orde, xaharren emaita hobe dun egur, merkeago ditun ... Eta gure bazkaria oraino hoin gibela! ... Beharrik haragia bederen etxean baitugu (*armairurat joanik hartzen du haragia eta, berak usaindu ondoan, Marihandiri emaiten dio sudurraren azpirat*). Usain arin bat badin bai, egia erran... Hiru egun hor dela holako beroarekin! ... Sendi zan ikusteko...

MARIHANDIK (*bizkarrez itzultzen dela*). – Ez, ez!... flakatuko nun!...

PAXKALINAK (*trufa batean*). – Andre aho-biribilla, nahuzu medikuaren bila igortzea?... Hoakit no, hoakit otoi hortik ... habil baratzerat tipula buru zonbaiten biltzerat ...

(*Marihandi badoa, Paxkalina ere bai haren ondotik haragia deramala, bainan laster heldu da gibelerat eta sukaldean urrats bat aditurik*).

PAXKALINAK. – Hi haiz hor, Urxula? ... Non hintzan orain arte, alfer tzarra?... Uste dun naski deus egitekorik ez dugula!

URXULAK (*atetik*). – Non nintzan? Ba ahal dakizu nik bezain ontsa, zuk igorria ninduzunaz geroz ... behien bazkatzen!

PIXKALINAK. – Oren bat behien bazkaltzeko! ... Biper gorri piska baten bila johan bainaiz auzorat, kasu eman suari ... eta su-gainean den kokelari... (*badoa*).

- XI -

URXULA, *bakarrik*. – To! ... (*usainka ari dela*) usain tzar hura airatu da hemendik ... bainan sukaldean pausatu ... Zer sorgin da misterio hau! ... Uste nuen garratoin hil bat bazela nonbait usteltzen ari ... Garratoin hilak, usaian segurik, ez dabilta hola barne batetik bertzerat ... Atxemanen dut bai, goiz edo berant, nondik den usain hori ... (*ateari jotzen dute*).

- XII -

URXULAK. – Aitzina! Aitzina!

(*Sartzen da Kattalin bere amaren ondotik, biek parasol handi bana eskuan... Ager-aldi huntan eta ondokoetan Kattalin ez dagoke tokiaren gainean, ehun bat kukuso balitu bezala bizkarrean*).

ANESEK. – Jainkoak dagizula egun on, andre maitea! ... Hemen egoiten da Marihandi, Ttomasen ama?

URXULAK. – Hemen berean.

ANESEK. – Etxekoa zare dudarik gabe zu ere? ... Errozu, otoi, ...

URXULAK. – Nor dela etorria behar diot erran?

ANESEK. – Gu!

URXULAK. – Zuek bai ... Bainan nor zaizte?

ANESEK. – Errozu Añes dela bere alaba Kattalinekin ...

URXULAK. – Marihandi ateratua baita, Paxkalina ere bai, jar zaizte hor ...
Laster sartzekoak dire ... Emadazkitzue zuen parasola ...

ANESEK. – Eta Ttomas hor da?

URXULAK. – Ttomas goizez geroz kanpoan; iluneko baizik ez da sartuko ...

ANESEK. – Hol eta gu haren ikusteko etorriak! Letra bat baginion igorria! ...

URXULAK. – Letra etorri da bai, duela oren bat doi-doia!

ANESEK. – Igorria ginion Begigorriren otobusean heldu ginela ... Goizean goiz beraz, ez baiginuen huts-egin nahi, bide bazterrean ginen haren beha eta ez baitzen ageri, jarri gare sorropilaren gainean. Sorropila ihintzak bustia baitzen, erran diot ba Kattalini: «Xuti hadi, Kattalin, busti hunek kalte egingen daun, jadanik mafrundi izanki etal...» Funtsean ni ere hala naiz! ... Uste duzu xutitu dela? Beautzu otoi! ... Beharrik han ginaudelarik, otomobila bat gelditu zauku gure aldean ... Nor zen? Mattin Betikurri, gure ezagun bat hunat heldu zena ... Berekin eremanen gintueia, hartu gaitu eta horra nola hemen garen otubusa baino lehenago ...

URXULAK. – Nere etxekandrek atsegin dukete segur ...

ANESEK. – Heien sehi baitzare! ... Ezaguten dituzu beraz ... Etxe on bat da hau omen!

URXULAK. – Use nuke! ... Zure alabak ikusiko du berak laster... Ttomasen andregeia da beraz zure alaba?

ANESEK. – Zer nahuzu! Neska bat ez da bere amari josia bizitzeko egina ... Eta gero bat bertzeaz agradatuak dire ... Mutiko gisako bat dela Ttomas iduritu zauku ...

URXULAK. – Ontsa parekatuko dire segur biak ... Bainan, barkatu otoi, lana ez baita bera egingen ni hemen egonez ... Zaudezte hor, zuen etxean bazinete bezala ... (*badoalarik, bere buruari*) Zer du neska horrek? Hazteria?

- XIII -

ANESEK. – Bainan, neska dohakabea, ago nonbait ... Ahalgetua nintunan hitaz!... Zer mila sorgin dun ezin-egon hori? ... Kasu eman jendeen aitzinean bederen ... Zer dun?

KATTALINEK. – Oi! ama! ... Oi! ama!

ANESEK. – Ez baita nehor orai, erradatan zer dunan.

KATTALINEK. – Zerbait ausikika.

ANESEK. – Non?

KATTALINEK. – Hor ... bizkarrean! ...

ANESEK. – Bakarrik baigare orai, hatz egin zan eta gero ago geldirik.

KATTALINEK. – Bizkar-erditsutan dut; ez nitake hel!

ANESEK. – Ixkilina bat nik uste ... Haugi hunat ... itzul hadi ... Ez dinat deusik

kausitzen.

KATTALINEK. – Oi! ausikika ari zaut ... harat eta hunat badabila ...

ANESEK. – Kukuso txar bat (*arrabots bat kanpoan*) Ixo! norbait!... ago behar bezala.

(*Urxula sartzen da*).

URXULAK.- Egarrituak zaizte beharbada?

ANESEK. – Ez, ez, milesker; ez dugu deusen beharrik.

URXULAK (*ateratzearekin, bere buruari*). – Bai, bai, hazteria edo zainetakoa!

- XIV -

KATTALINEK. – Oi! ama! ... Ama, ama!

ANESEK. – Ago ixilik, otoi ... Etzanela haurarena egin!

KATTALINEK. – Ausikika ari zaut beti!

ANESEK. – Hik uste! ... Hatz egin zan eta bakea gero niri!

KATTALINEK. – Egidazu zuk, otoi.

ANESEK. – Haugi berriz hunat ... itzul hadi! (*Bizkarrean hatz egiten diola*). Hor dun?

KATTALINEK. – Ez ... gorago ... sorbaldan!

ANESEK. – Hea! apai hadi ...

KATTALINEK. – Ez hortan, ama, bertzean ... Orai berriz bertzean!... Lepoari goiti ari da ... Ho! la la! orai beheiti!

ANESEK. – Hauxe da komedia! ... lzerditan nun jadanik.

KATTALINEK. – Oi! ama! Min egiten daut!... Eta badabila ezker eta eskuin... Eta zer zimikoak! ... Bizkar-erditarat jina dut berriz ... Ori, oro, goiti ari zaut orai.

ANESEK. – Huntan aski, he! (*Esku zabalaz jotzen du bizkarrean azkarki*). Hobeki haiz ora? ... Au Ttomasek ikusten bahintu! ... La! la! Ez dun gehiago deusik ... Su-negal zonbait ...

KATTALINEK (*kexu hura ere*) . – Ezetz, ama, ez dela sunegal bat ... To! orai hemen dut (*bere sorbalda bat jotzen du berak*) ... hor orai (*bertze sorbalda jotzen du*) ... (*Amari bizkarrez itzulirik*) zuri, ama! (*Amak jotzen du*) ... Jo zazu, ama, finki ... finkiago ... gorago ... beherago ... (*Bat-batean Kattalinek beharria luzaturik*) Xo! ama! ... nere ustez kantuz ari aditu dut... Xo! berriz egiten balu! (*ttirritta baten kantua*). Aditu duzu, ama? Ttirritta bat da, ttirritta bat!

ANESEK. – Goizean erraiten naunan belarraren gainean ez jartzeko! Nik errana ez dun sekula egin nahi ... Eta orai, baitakin zer den, beldurrik ez baitun gehiago, han edo hemen sendituko dunelarik zimikoka ari, askiko dun lehertzea den tokian.

KATTALINEK. – (*alegeraki amak errana egiten du: bere bizkar sorbalderi kaska bat hemen, kaska bar han, kaska bakotxaren ondotik errepikatzen duela*): huts-egin dut! ... huts oraino! ... huts berriz ere! ... (*Bi eskuak kepo giblean ezartzen dituela*). Oraikoan haatik badut .

ANESEK. – Tinka zan, tinka finki!

KATTALINEK. – Sorgina! joan zaut berriz ... Bizkarrean dut ... geldí geldia dago ... Hor! hor! zuri, ama! emozu!

(*Añesek esku zabalarekin emaiten dio bizkarrean kaska bat izigarria, hainbertzetaraino non Kattalinek, min harturik, oihu handi bat egiten baitu ... Ordu berean sartu dire Paxkalina eta Marihandi*).

PAXKALINAK eta MARIHANDIK, biak batean . – Oi! zeruko Amal

PAXKALINAK (*kexu*) . – Burutik baduzu zure alabaren jotzeko hola?

MARIHANDIK . – Zer egin dautzu gisa hortan zafratzeko?

KATTALINEK . – Ez daut minik egin!

PAXKALINAK . – Ez ahal duzu erranen kaska hoik ...

MARIHANDIK . – ... perekak zirela?

KATTALINEK . – Ez dautala minik egin!

ANESEK . – Izaitekotz ere ...

PAXKALINAK . – Zer izaitekotz ere?

ANESEK (*bere -baitaraturik*) . – Huna gauza den bezala: Kattalin eztulka ari baitzen itoka, bizkarrean eman diot kaska ttipi bat ... mafrundiaren goiti joan-arazteko ... Gure eskualdean hori da mafrundiaren xahutzeko eta kalitzeko sendagailurik hoberena ...

PAXKALINAK . – Ontsa ginakien ori guk ! ... Nork behar zuen asmatu? ... Erran bazinute berahala!... (*arras eztitua*) hola denaz geroz, ontsa da ... Hor zaizte beraz? ... Urxulak erran dauku nola jinak zineten otobusa baino lehenago ...

MARIHANDIK . – Atsegin dugu segur ... (*Kattalini*) zato, haur maitea ... emadazu musu (*musu emaiten dute elgarri* . Erran gabe doa, orai arte eta hemendik aitzina *tirritta lanean ari dela Kattalinen bizkarrean eta beraz Kattalin nehon ez dagokela*).

PAXKALINAK . – Hemendik laster bi ama ukanen dituzu, haur maitea.

KATTALINEK . – Bai, ama!

PAXKALINAK . – Ez naiz ni ama ... (*Marihandi erakutsiz*) horra zure bigarren ama. Ni zure tanta izanen naiz.

KATTALINEK . – Bai, tanta!

MARIHANDIK . – Bai, zonbait egunen buruan bi ama ukanen dituzu, ni eta zure ama.

KATTALINEK . – Bai, tanta!

MARIHANDIK . – Bainan, Kattalin gaixoa, ez naiz tanta ni, ama naiz.

KATTALINEK . – Bai, ama!

MARIHANDIK . – Eta horra tanta!

KATTALINEK . – Bai, tanta!

MARIHANDIK . – Eta zer diozu gure Ttomasez? ... Agradatzen zautzu? (*Kattalinek burua apaltzen du*).

ANESEK . – Erron bada!

KATTALINEK . – Bai, tant ... bai, ama!

MARIHANDIK . – Pixka bat herabe, gaixo haurra! ... Ez da harritzeko, ni ere hola hola nintzan, lehen aldikotz buruz buru egin nuelarik Batistun, nere senar zenarekin ... Jainkoak bere lorian duela!...

KATTALINEK . – Bai, ama!

PAXKALINEK . – Zuen letra goizago eskuratu baginu bederen, Ttomas etxean egonen baitzen! ... Arrats arte ez da sartuko ...

ANESEK . – Eta gu lehenago joan behar!

(*Kattalinek begiak torratzen ditu, nigarrez ari balitz bezala*).

MARIHANDIK . – Nigarrik ez egin, nere haur maitea ... Ttomas ez baduzu ere

egun ikusten, bertze aldi batez ikusiko duzu ... Ha! erran dezaket bai maite zaituela gure Ttomasek ...

KATTALINEK. – Bai, tanta!

MARIHANDIK. – Ez, ama naiz ni! ... Bainan berdin du ... Maite zaitut nik ere jadanik ... eta nahi dautzut oroitzapen bat eman ... (*badoa petenten bila*) ... Hea! hea! zer diozu petenta hoitaz? ... Ez dire pollitak? ...

KATTALINEK. – Bai, ama!

MARIHANDIK (*beharriak ikertzen diozkala*) . – Ez duzu naski petentarik sekula era-bili! ...

ANESEK . – Haurra zelarik, nahi izan giniozkan erosi ... Bainan aita etzuen onartu, min eginen ziotela!

MARIHANDIK. – Ez dute min egiten ... Ori, nahi dauzkitzut berehala ikusi soinean ... Sos berri bat bezain pollita izanen zare ... Paxkalinak, begi onak baititu, beharriak doi-doia xilatuko dauzkitzu ixkilima batekin...

ANESEK . – Erran milesker, ama!

KATTALINEK.- Bai, ama ... milesker, ama!

MARIHANDIK . – Paxkalina, hik eginen dun lan hori, Añesek eta nik atxikiko diogularik burua.

(*Erran bezala egiten dute, Kattalin oihuka eta zalapartaka ari dela bere kaderaren gainean; Paxkalina, Marihandi eta Añes ari zaizko aldizka: Ez higi ... Ez da deusik ... Ago bada geldirik ...*

MARIHANDIK . – Horra batto ... bertzea orai!

(*Ostion bezala, Kattalin oihuka eta zalapartaka, bertzek aldizka: Ikusten duzu ez duela minik egiten ... Bertze bat iduri duzu jadanik ... Mirailean ikusiko dun zein pollita haizen orai ...*

(*Marihandi eta Paxkalina oharturik daude aspaldi huntan Kattalin nehon ez dagola: ez baitakite ttirittaren berri, elgarri ari dire keinuka zer öte duken*).

MARIHANDIK. – Baian, haurra, zer duzu hola aitzeko?

KATTALINEK.- Deusik, deusik, ama.

PAXKALINA. – Hobe segur deusik ez baduzu ... Bainan hemen egonez eleka, gure bazkaria ez baita eginen ... Gure neskatoak deus lanetan ez daki, bazkari egiten are gutiago ... Beraz harekin itzuli bat eginen duzue kanpo hoietan, guk mahaina ezartzeko artean ... (*Oihu egiten duela*). Urxula! Urxula!

URXULAK. – Badantzut, etxekandrea.

PAXKALINAK. – Heian! andre hauk lagunduko ditun kanpo hoien ikusten... (*Añesi eta Kattalini*). Berehala arte!

(*Paxkalina eta Marihandi badoazi*).

- XVI -

URXULAK. – Bazaizte?

ANESEK. – Zeren ikusterat nahuzu joan giten?

URXULAK . – Ikusiko ditugu ... behiak, oiloak, xerriak, baratzea, landa , pentzea...

ANESEK. – Zer dire bertzetan ez bezalakoak hemen?

URXULAK. – Ez dakit ... Nahiago balin badituzue karrikak ikusi? ... Etxeak badire herri huntan bidearen bi bazterretan, denak elgarri lotuak ... Ongarri batere gabe etxe aitzinean ...

KATTALINEK. – Ama, holakorik ez dugu behin ere ikusi!

ANESEK. – Horrek balio du ... goazen!

URXULAK. – Minutaño bat ... nere oinekoer pasako bat eta heldu naiz! (*Badoa*).

- XVII -

ANESEK (*kexu*) . – Ez hauke beraz geldirik! ... Zer erran behar dute hitaz? ...
Ez dun debrua ttirrita bat eta badinat uste, nik ukan banu, oraikotz aspaldi
lehertua nukela ... Berriz! ... Bakarrik gaitun, haugi hunat ... Etzaukun
ttiutt eginen aldi huntan ... Non dun hatz!

KATTALINEK. – Bizkarraren erdi ordian.

ANESEK.- Hor?

KATTALINEK. – Hor berean!

ANESEK. – Ez mugi ... emeki emeki goiti jin-araziko dinat ... La! la! goiti ari dun?

KATTALINEK. – Bai, bai ... heldu da.

ANESEK. – Apa! hadi ... Ha! ha! ikusten dinat ... beltza! Badinat! ... badinat ...
Urde xerria! Erien artetik joan zautan ... No! behazan jauzika hanxe ...
Itsusi tzarra! ... Zangoaren azpian mamikatzen ahal bahun ! ...

(*Biak badoazi lasterka, ezker, eskuin, ttirrita lehertu beharrez ... Bainan begietarik galtzen dute ...*)

KATTALINEK.- Norat joan ote da?

- XVIII -

URXULAK (*heien lasterrak ikusirik*) . – Zeren ondotik zabilzate hola lasterka? ...
Zer galdu duzue?

ANESEK eta KATTALINEK . – Deus, deus!

PAXKALINAK (sartzen dela) . – Zer! hemen zaizte oraino? Zer zen astiko
arrabots hura ...

MARIHANDIK (*Paxkalinaren ondotik etorria*) ... – Iduri baitzuen etxea erortzen
ari zela?

ANESEK eta KATTALINEK. – Bagoazi, bagoazi! (*Badoazi*).

URXULAK (*heien ondotik ateratzearekin*) . – Aitzineko pollitekin behar naiz ibili!

- XIX -

PAXKALINAK (*begitartea zorrotz*) . – Marihandi, haugi hunat ... Zer dion neska
hortaz? ... Gure Ttomasek burua galdua din nik uste neska horrekin
ezkon-tzeko? ... Neska hori eria dun, badin zerbait horrek ... Nik bezala
ikusi dun alderat hazka ari, makurtua, bihurdikatua; zonbat keinul zonbat
zimiñokeria!... Eta ama! ... Ikusi dun nola derabilan joka eta panpaka
bere alaba? Mafrundiaren sendotzeko, berak dionaz... Gezur hori egia
dela uste dun hik? ... Eta oraixe berriz, zer zituzten laster hek, ostiko hek,
oihu hek? ... Zer dire ixtorio-mixtorio hoik guziak? ... Ez, ez! Zerbait
badun hor behar ez denik ... Hemen direnaz geroz, gurekin bazkalduko
ditun eta gero ... joan ditela debruetan barna!

MARIHANDIK (*nigarrez*) . – Eta gure Ttomasi! ... Zer bilakatuko da?

PAXKALINAK . – Nik erranen zionat zer gertatzen den eta etzuden deus erraite-
korik ...

MARIHANDIK. – Gaixo, gixagaixo Ttomas! ... Zer bihotzmina ukanen duen! ... Erituko zaukun segur ... Jainko maite maitea! (*Erortzen da kadira baten gainerat*).

PAXKALINAK (*hari buruz doala*) . – Ez ahal haiz flakatuko hi ere!

MARIHANDIK (*xutitzen dela zerbaitek xixtatu baiu bezala*) . – Ai! ai! ai! ... Ai! ai! ai! ...

PAXKALINAK . – Ago nonbait otoi, he!

MARIHANDIK (*oihuka eta dena keinu*) . – Ho! la! ia! ... Zerbait ari zautan xixtaka, ausikika bizkarrean! Ai! ai! ai!

PAXKALINAK. – Torra zan non ere baitun hatz eta ... bakea!

MARIHANDIK . – Ez nitaken he ... Ai! Ai!

PAXKALINAK. – Bainan, astaña ez bertzea, zer dun burutik ba? ... Haugi hunat, torratuko hutnik (*hatz egiten dio*)... Kukuso bat seguraz ere ... aski biltzalea haiz betidanik! ... Hor! joanan dun nik uste?

MARIHANDIK. – Ez, ez dun joana ... Kukuso batek ez din holako zimikorik egiten ... Bertze zerbait dun ... Ai! Ai! goiti ari dun!

PAXKALINAK. – Ask! hortan, Marihandi! ... Iduri dun Kattalinek bere gaitza eman daunala ...

MARIHANDIK (*zanpaka bere bizkarrari*) . – Nahi nuken no, hik bahu! ... Zer ausikiak! ... Ai! Ai! ... (*Bat-batean ixiltzen da, geldi geldia egoiten eta hasgorapen batean*). Ha! ez dinat gehiago deusik senditzen ... Zer zorional ...

PAXKALINAK. – Badun segur aski komedia erabilirik hola!

MARIHANDIK. – Orai burua bakean baitut, Paxkalina, hik erran solasez gogoetatua nagon ... Bazitaken hunat jinak ditugun emazte sorgin tzar hoiek xarmatu gaituzten ... Joan ditela, joan antzara ferratzerat! ... Ttomasek nigar egiten balin badu, egin dezala ... Huna beraz zer eginen dugun ... (*Paxkalina dena keinu eta ziminokeria ari dela ikustearekin*). Zer dun orai hik berriz?

PAXKALINEK. – Hau soberakina dun ... Hi sendo eta ni eri? ... Nere bizkarrean dun orai gaitza, zer baita ere ... Torra nezan ... torra finki (*Marihandik hatz egiten diolarik*). Hal etor ditela emazte sorgin tzar hek! ... sorgin beltzak! ... Berriz, Marihandi, berriz... gorago ... Ai! Ai! ...beherago! ... Etor ditela ifernuko debru hek! ... Jats ukaldika emanen ditinat kanporat!... Ez dine hek gozatuko nere haragia!

(*Arte hortan sartu dire Añes, Kattalin eta Urxula*).

- XX -

ANESEK. – Zer duzu planta hori?

PAXKALINAK (*gorri gorria kexu*) . – Ba ahal dakizu nik baino hobeki!

ANESEK (*irri batekin*) . – Ha! ikusten dut zer den! ... Ez da deusik!...

PAXKALINAK. – Eta baduzu kopeta deusik ez dela erraiteko? ... Ha! egoiten ahal zineten zuen herrian, hunat etorri gabe! ... Atxikitzen ahal zinuten zuentzat hunat ekarri duzuen gaitza, ema tzarrak ez bertzeak!

KATTALINEK. – Ho! ... tanta!

PAXKALINEK. – Ez da gehiago tantarik!

KATTALINEK (*Marihandi buruz*) . – Ho! ... ama!

MARIHANDIK. – Ez da gehiago amarik!

ANESEK . – Erraiten dautzuet deusik ez dela!

PAXKALINAK. – Zer naukazu bada, burutik joana?

ANESEK. – Utz nezazu mintzatzerat ...

PAXKALINAK. – Mintza zaite bada!

ANESEK. – Kattalinen ttirritta da ...

PAXLAINAK, MARIHANDIK eta URXULAK . – Kattalinen ttirritta?

ANESEK. – Goizean, Begigorrin otobusaren beha ginaudelarik, Kattalin bide bazterrean jarri da eta ohartu gabea ttirritta bat sartu zaio arropetan ... Ez duzue ikusi ostion nola ari zen hazka, nehon etzagokela? ... Eman diozkadan kaskak, ikusi dituzue, ttirritaren lehertzeko emaiten niozkan... Azkenean atera arazi dugu, baina espakatu zauku ... Aditu duzue nola ibili garen lasterka haren ondotik, baina ez dugu atxeman ... Eta orai nahi ukan du segur zure bizkarreko haragatik jastatu ... Ez da bertzerik!

PAXKALINAK (*irriz*) . – Hori baizik ez dena geroz, banoa beraz soinekoen aldatzerat eta ttirritta tzarraren hiltzerat ...

MARIHANDIK. – Ttirritta txar batek ezkontza bat hauster duela! ... Zer den haatik ... (*Urxulari*) Arxula, dener erraiten ahalko dun Tomas ezkontzen dela ... Ez dea hala, Kattalin?

L. LÉON.



HERRIKO BESTA BIHARAMUNEAN



HERRIKO BESTA BIHARAMUNEAN

Hiru mutxurdin: Maria, Katixa eta Marixume, laugarren: alarguntsa bat, Marimartin, ari dire trukean biga bieri: Marimartin eta Maria bertze bieri ... Geaxene eta Joana agertuko dire sarrixago ... Kantariak ez dira ager-tokian, bainan sahetsean gordeak ...

- I -

MARIXUMEK. – Tira zan tantoa, Katixa, ahanzi gabe ...

MARIMARTINEK. – Badun espantu, Marixume, hire tantoxka perreka horrekin!
Iduri dun, alaxeden, hiru millun batidunala irabaziak loterian! ...

MARIXUMEK. – Eta beti, Marimartin moko pinpin!

MARIMARTINEK. – Eta hi zer haiz? Marixume oro xume! ... Truk bat balitz bederen! Holako haroa tanto ezdeus batentzat!...

MARIXUMEK. – Xitotik heldu oiloa, Marimartin, eta tantotik truka! ... Eta bertze tanto bat guk egiten balin badugu, zuek duzuen tantoarekin, frinkak ditiagun!

MARIMARTINEK. – Frinkak edo lukinkak! ... Kasu ez ote direnetz ametsetako frinkak izanen! ... Marixume, etzanala arnoa sal mahatsa ontu aintzin! ... Ez dea hala, Maria? Ontsa ixil hago hor!

MARIAK. – Ez dun, segurki eta halere, nik laguntzearen beharrik, Marihandi! ... Buru egin hezake hihaurek kazkarot erreximendu bat!...

MARIMARTINEK. – Hire gatik norbeitek behar din ba ihardoki! ... Horiek hola, tiratua duzue zuen tantoxito, oilotu behar den famatu hura? Ontsa! ... Goazen beraz aintzina! ... Atx! gibelaldea minberatzen hasia dinat! ... Eian! noren dire kartak?

MARIXUMEK (*kartak biltzen dituela*). – Nere!

MARIMARTINEK. – Emazkin beraz, hoinbertze zimarkunkeriarik gabe!... Maria, kasu aintzinari; kasu keinueri! ...

(*Karta-aldi bat egiten dute, kantariak lehen kobla emaitzarekin*).

- II -

KANTARIEK. – Herriko besta biharamunian,
Berek dakiten xoko batian,
Lau andre: hiru mutxurdin, bat alarguna, jarriak itzalian,
Harri xabal bat belaunen gainian,
Ari dire, ari dire trukian.

MARIAK. - Zer dion, Marimartin? Nola uzten haute besta hauiek?

MARIMARTINEK. – Ontsa, Maria! ... Jainkoaren mirakulu ontsa! ... Nahiz atzo sartu dudan zerbait eta zerbait zintzurrari behera!..

MARIXUMEK. – Barne azkarra dun gero, betidanik, Marimartin! ... Ez hau hi bazkari on batek izitzen ...

MARIMARTINEK. – Erran berriz, Marixume! ...

KATIXAK. – Bi bazkari onek are gutiago!

MARIMARTINEK (kexu). – Ez dion ez hik ere tu egiten, Katixa! ... Katixa moko mehe!...

MARIAK. – Zein aise kexhatzen haizen haatik, Marimartin! ... Ixupa bezala pizten haiz! ...

MARIMARTINEK. – Hala dun eta, Maria! ... Zer dute? ala tanto herremeta bat irabazi daukute! akotz, gutaz trufatu behar oraino gainerat? ... Trufa baino musika gehiago! ... Apo mutxurdin txar txarkeria dine lehen ziliporta ahoan!...

MARIAK. – Nahi dun ixilik egon, Marimartin! ... Ni ere mutxurdina nun eta ... iduritzen zaitan hi ere mutxurdin egoiteko hobeaz hintzala! ... Mutxurdin egon bahintz, alarguntsa bat gutiago izanen baitzen ba mundu huntan eta ... nork daki? menturaz gizon bat gehiago! ...

MARIMARTINEK. – Zer dun erran nahi, haizen bezalako lixtafina hi ere? Nere senar zena nik hila dudala?

MARIAK. – Hik hila? ... Ez, ez, hortaraino! ... Hil-arazia edo bederen hiltzen lagundua ba haatik! ... Zer panpakoak ez diozkan eman gaixo gizonari! ...

MARIMARTINEK. – Behar baitzuten! ... Jainko maiteak duela bere lorian! ... Bainan zertako zen hain berant sartzen igande eta merkatu arrats guziez? ...

MARIXUMEK. – Aski hola zuen katapitekin! ... Hizka baizik ez duzue onik, iduri hor edanak! ... Zuen haroarekin jendearen ekar-arazteko ere hunat! ... Orizue, nik errana! ...

- III -

(Azken hitz hoik erraitearekin, agertzen dire Geaxene eta Joana).

KATIXAK. – Ez asalda! ... Joana eta Geaxene ditun, gure adixkide xaharrak ...

JOANAK. – Hek eta berak ...!

MARIMARTINEK (*bazterrerat*). – To! Bertze bi mutxurdin konduaren gaineko! ... Gaixo ni! ...

GEAXENEK. – Bazaudezte beraz?

KATIXAK. – Bai, zuek ere ibiliki! ...

JOANAK. – Eta zer xoko pollitean! ...

GEAXENEK. – Jokoa ari zaizte-eta! ... Musean?

MARIXUMEK. – Ja! ... Musa gizonen jokoa! ... Trukean, trukean, trukean gu!

MARIMARTINEK. – Kalakarik aski hola! ... Joana eta Geaxene, gurekin gelditzea bazezate segurik, har zazue kadera bana eta gu bezala jar zaizte ... lurrean! ...

- IV -

KANTARIEK. – Zer ote duten nik jakin nahi
 Pixarrarekin bertze jaun hori?
 Zorroa du biribila, moko mehea, tente xutik egoki,

Xalako bat ote den nago ni,
Hanpatua, hanpatua ederki.

KATIXAK (*xahakoak eskuetan harturik*). – Etzakinat nongo Eskualdunak asmatua duen xahakoa, baina gauza ederra eta ona asmatu zinan hori!

MARIMARTINEK. – Hik erran, Katixa! ... Zer kaskokoa bide zen Eskualdun maite hura, nor baitzen! ... Ezagutzen banu, bi musu eman nezozken heinbat gogotik! ...

KATIXAK. – Gizonkia balitz ere delako Eskualduna? ...

MARIMARTINEK. – Zertako ez? Aldi baten gatik! ... Bainan segur bezala nun lehenbiziko xahakoaren egilea ez dela gizonkia, baina emaztekoa.

JOANAK. – Nondik daukan segurtamen hori, Marimartin?

MARIMARTINEK. – Ba, no, baitakit nik, zuek ez bezala, gizonen berri. Ezagutu ahal dinat nere senar zena! ... Jainko maiteak duela xahakotik xirrixan baino kopa beteka edan ... zarraztan! ...

GEAXENEK. – Eta beraz guk emaztekiek xirrixan ... xintxurra kilikatuz! ...

MARIMARTINEK. – Gizon figura hoik gormantak ditun, zartain zaharra bezain gormantak! ... Ezagutzen ditinat bai nik, bi urte kasik bizi izan naizenaz geroz nere senar zenarekin! ... Jainko maiteak duela bere loriant! ... Ez dakizue zuek, mutxurdin sortu baitzaizte eta mutxurdin hilen, gorritik ala xuritik ezin aseak ditun gizon hok! ...

JOANAK. – Eta horitik?

- V -

KANTARIEK. – Jes! oraino zer dut bada ikusten?

Zer ba hegalpean dute gordetzen?

Egoitza goxo hortarik, burua halto, xahakoa trufatzen,

Bihotzez azkarrago zeren den:

Kuiattoa, kuiattoa ari zen.

MARIAK (*kuiattoa hartzen duela*). – Horia, nere iduriko, gizonak baino maiteago guk! Ez dea hala, Marimartin?

MARIMARTINEK. – Deusik etzuden gorde hiri, Maria! ... Eta hala dun, horikoak gaitun gu, arnokoak baino gehiago! Aho-fina behar din gero, horiaren maitatzeko! Sobera aho-lazoak eta arruntak ditun gizonak!

KATIXAK. – Aguardintak xintxurra zoin goxoki ez du leguntzen eta karrakatzen!

MARIXUMEK. – Bai eta bihotza nola ez pixten eta pixkortzen!

(*Guziek xurgatzen dute kuiattoa aldizka, Marimartinek azkenik*)

MARIMARTINEK (*Kuiattoa bihotzaren gainean daukala tinkaturik eta musu emaiten diola berriz eta berriz*). – Gaixo mama! ... Maite pollita! ... Nimino kontsolagarria! ... Gauza bat baizik ez din gaixorik punpulina maitagarri hunek: lasterregi husten! ...

MARIAK. – Zer da, hutsa berriz ere?

MARIMARTINEK. – Hire kasko zuria bezain hutsa, gizagaizo Maria! ... No, Geaxene, hik astia baitun, habil laster batez ostatura, etxekandeari erron hoberenenetik azkarrenetik emaiteko eta ... betetzeko ontsa ... eman arau zapatuz! ...

- VI -

KANTARIEK. – Handikan ximiko, hemendik irri,
Haur batzu bezala jostetan ari,
Gogotik emaiten dute begi koipe bat hanxet joan
denari,
Hitz bat erran gogo diote sarri,
Beharrira, beharrira kuiari.

MARIMARTINEK. – Ail iu! iu! ... Biba gu! ... Zer arratsalde goxoa johan dugun
hemen!

KATIXAK. – Uste nuken, Marimartin! ... Hi bezalako lagun batekin, lagun
alegera batekin, loria dun zinez ...

MARIAK. – Haroka bezain mokorra haiz noizean behin, Marimartin. Baina egiak
bere bidea behar, gehienetan xoria bezain alegera! ... Noizez geroztik
haiz hoin alegera?

MARIMARTINEK. – Ni? Betidanik! ... Hola sortua naun-eta! ...

MARIAK. – Heum! ... Etzakinat haatik! ... Niri iduritzen alargunduz geroztik
haizela arras alegeratu! ...

MARIMARTINEK. – Ergeldu, hots! Hori dun erran nahi berdin! ... Bai eta garbiki
mintza, ez dun gero arras gezurra! ... Ezkont aintzin ere papogorria
bezain airosa nindunan, alderat irriz eta kantuz! ... Bai baina ere nere
zorigaitza, jin baitzen papobeltza!...

MARIXUMEK. – Papobeltza? Nor mirakulu dun hori?

MARIMARTINEK. – Nere senar behar zena! ... Jainko maiteak duela bere
lorian! ... Nola sartu nintzan ere ezkontza deitu saltsa merlatu hortan! ...
Zer nahi den, bi urte, bi urte zabal bezain luze higatu ditinat nere gizon
zenarekin! ... Ha! hura! Jainko maiteak duela bere lorian! ... Hitz daunat
kantuak eta irriak zintzur zolaraino edo beherago sartuak nituela! ... Ba!
ez nere gizonaren beldurrez, ez! Ni nindunan nausi eta etxekandre ... eta
igande gehienez palo eta talo ederrak bai eta idorrak bildu ditin, nik emanik
... Jainko maiteak duela bere lorian! ... Bainan ... nola erranen daunat?
Ago! ... No! badakin elizan argien hiltzeko andre-serorak ziri luze bat
baitu halako kapelu beltz batekin puntan? ... Nere gizona holako zerbeitsu
zunan: ziri bat, ziri handi bat ... eta horrekin kapelu beltz bat irrien eta
kantuen hiltzeko! ... Jainko maiteak duela bere lorian! ...

JOANAK. – Gaizo Marimartin! Badun beraz zerbeit ikusirik!

KATIXAK. – No, Marimartin, gizon frikun hoik batere ezagutu gabe, baninan
beldur bat deus guti dutela balio, eta horra zertako nahiago izan dudan
mutxurdin egon! ...

MARIMARTINEK. – Erraiten ahal dun ba aintzina ez duneaa galde bihirik ere
izan eta nehor ez dela hire ondotik ibili! ...

MARIAK. – Ixo, otoi, Marimartin! ... Zer haiz hi holakorok? ... Hik gerlabide-keta
baizik ez dun onik!

MARIMARTINEK. – Zer nahi dun, Maria, egia maite dinat nik!

KATIXAK. – Kasik aguardinta bezenbat!

MARIMARTINEK. – Eta Geaxene demuntren hura ez ageri oraino! Atxalenia (1)
bi urratsetan delarik bizkitartean!...

JOANAK. – Ez balin bada segurik Elizaldera (1) joan!

(1). Arrangoitzeko hiru ostaturen izenak dire ... Erran gabe doa bertze herri batean bertze izen
batzu eman ditazkela.

MARIAK. – Edo Maiderrenera

MARIMARTINEK. – Zertako ez Parisera? ... Zaitzen bezalako hitz-untzi herdoilak!... No! sekula goiza baino lehen heldu balin bada, beharko ditin bereak eta astaña beitzarenak aditu Geaxene sorgin haki! ...

(*Agertzen da Geaxene, kuiattoa esku batean, bertze eskuarekin ezpainak torra eta torra ari dela*).

GEAXENEK. – Huna! huna! ... Hauxe dire jende irakituak!

MARIMARTINEK (*kuiattoa eskutik kentzen diola Geaxeneri*). – Neska punpulina ez bertzea, non miia sorgin egon haiz hain luzaz? ... Oren bat! ... Bainan, bainan ... erdi hutsadun untzi hau! ... Ez dioten erran zapatuz betetzeko?... Badun hor zerbait misterio!...

GEAXENEK. – Xilo baita behar bada?

MARIMARTINEK. – Zer! Xilo? Misterioa?

GEAXENEK. – Ez! kuiattoa?

MARIMARTINEK. – Badinat uste hire aho handi hori dela xilo! Hurbil hakit hunat! ...

GEAXENEK. – Ez, gaixoa, ez!... Zertako?

MARIMARTINEK. – Hurbil hakit hunat edo bertzela kasu!... La! hola! ... Eian orai, emadatan hatsa ahorat! ... Azkarkiago! Azkarkiago ba!... Haizen bezalako zartain zaharra! Aguardint usaina badarion bafaka!... Aise dun erdi-hutsa kuiattoa!... Gu hemen egarriak horituak ginaudelarik, hi aguardintaz asean! ... Habi hemendik, hoakit bixtatik, ni xuti baino lehen! Ikusiko dun bertzela nere senar zenari ... Jainko maiteak duela bere lorian! ... zer paloak niozkan emaiten ... (*Edaten du kuiattotik*). Ha! zer gauza hau! ... Hiri, Katixa!

KATIXAK (*edan ondoan ezpainak milikatuz*). – Hum! ... Hil bat pitz lezaken hunek! . Marimartin, hire onetan etzonela huntarik eman hire gizon zenari! ...

MARIMARTINEK. – Ez din lanjerik! ... Jainko maiteak atxik dezala bere lorian!...

KATIXAK. – No, Maria, hire aldi!

MARIAK (*edan ondoan*). – Ahotik ezin utzia dun! (*Berriz edatera doalarik*).

MARIXUMEK. – Utz zan gero bertzeentzat ere! (*Eskuetarik kentzen dio Mariari kuiattoa*). Gu ere hemen gaitun! ?

MARIAK. – Uste ninan ez huela maite hik!

MARIXUMEK (*edan ondoan*). – Eta gaixo Joana, guri beha hor! ... No, Joana, no! Edazan trago bat onal

JOANAK. – Beldur nindunangabe behar ote nintzen gelditu! ... (*Edaten du hustu arte*). Halabiz erran din, no, kuiattoak! Predikù laburra zinan!...

GEACHENEK (*urrundik eta nigarrez*). – Eta nik? ... Bila izan ondoan!...

MARIMARTINEK (*xutitzera bezala egiten duela*). – Zer haiz, hor oraino hi? ... Ago irran bat! Heldu naun!...

KATIXAK. – Ago hor, Marimartin! ... Goazen jokoan; partida hau sekula ez diagon bururatuko bertzela! ... Eian! noren diren kartak! ... Nihauri, nere ustez!

MARIMARTINEK. – Ez, ez! Ez ditun hiri! ... Trukean beti karta emaile nahi hindazke eta hogeita hamekan beti esku! ... Nere ditun kartak!

MARIXUMEK. – Nondik hire! ... Ostion hik emanak eta zer ditun, berriz eman nahi!

MARIMARTINEK. – Zuen kalaka ezin atertuarekila, etzakinagu gehiago zertan garen! ... Joanak guk baino hobeki bazakiken ... Nor da karta-emaile, Joana?

JOANAK. – Maria! ... Nonbeitik ere ixilik dagoena!

MARIMARTINEK. – Iduritzen zaitanan ba! ... Eian, Maria, nahas ontsa eta eman! ... Zenbatna gare?

- VII -

KANTARIEK. – Seira truk dire zazpietarik

Tantoz ere berdin bi aldetarik.

Xahakoa eroria, mokoz ipurdi, naski odolaz husturik;

Kuiattoa han dagote etzanik,

Azken hatsa, azken hatsa emanik.

MARIMARTINEK. – Seira truk! ... Hauxe da kinka txarra! ... Nahi duzue luzatu bederatzi truketara?

KATIXAK. – Ez, ez! Jo hola-hola, beretik!

MARIMARTINEK. – Guzientzat berdin dun! ... Emazkin ba kartak. Maria!...
(*Mariak emaiten ditu kartak*)... Hauxe dun ikara eskuetan!

MARIAK. Nik ikara! ... Ikusiko dun, no, abian!

MARIMARTINEK. – Gezurrik gabe goazen, Maria!

Eman ba jokoan ezti ezti!

Pasa zan untzi beltz hori, edan dezagun trago bat edo bia,

Bihotza dinat epeltzen hasia!

(*Marimartin xahakotik edaten ari delarik*).

KANTARIEK. – Harek zuen, harek zuen grazia!

(*Bertze hiruek aldizka edatearekin*).

KANTARIEK. – Zahagiaren seme joria,

Non duk axtiko soro lodia?

Gaizoa, birunda huntan zurgatu dautek hire odol guzia,

Orai hor ago zimurrik aurpegia,

Kokoriko, kokoriko jarria!

MARIAK (*xahakoari azken zirrizta eman-arazi ondoan*). – Gizagaizo xahakoa!
Halabiz erran din hunek ere! ... Oraikoan haatik bagitun! Ez dea hala,
Marimartin? Ai! iu! iu!... Baietz, Marimartin, ez din balio berriz egitea,
ikusia dinat, ikusia dinat ...

MARIXUMEK. – Kasu ba, Katixa, keinueri! ... Orai ere Marimartinek pasatu daun bat dudarik gabel

MARIAK. – Batere dudarik gabe erraiten ahal dun ba! ... Joka hor, Katixa! ...
(*Katixak jokutzen du karta bat, Marimartin dudan bezala dago*).

MARIMARTINEK (*Mariari behatuz*). – Eta nik?

MARIAK. – Eman txar! ...Haugi huna! ... (*Marimartinek emaiten du karta bat, Marixumek bertze bat, Mariak ere bai erranez*): Lehena zuen!

MARIMARTINEK. – Zertako utzi dioten lehena? ... Haizen bezalako kasko gogorra, ez dakin ba hobe dela beti lehena altxatzea! Sekula santan ez dun ikasiko hik trukean!

MARIAK. – Ago otoi ixilik, iturri turrusta! ... Hik baino hobeki bezakinat zer ari naizen! ... Ikusiko dun ondolik. Hiri berriz, Katixa!

(*Katixak jokutzen du karta bat*).

MARIMARTINEK (*berriz dudan*). – Eta nik?

MARIAK. – Haugi huna berriz ere! Eman txar! (*Marimartinek jokutzen du karta bat, Marixumek bertze bat, Mariak ere bai erranez*). Bigarrena gure!... Eian orai non ditutzu en zuen espantuak?

- VIII -

KANTARIEK. – Nahiz zeraukan azken eskua,
Mariak duaku hasten gudua:

MARIAK. – Truk!

MARIMXUMEK. – Jo zan!

KANTARIEK. – Mariak xango, Katixak xaldun, Marixumek
hirua!

MARIAK. – Marimartin, xoratu zain burua?

Lauarekin hiruaren keinua!

MARIMARTINEK. – Zer derasan, no? Nork egin daun keinu?

Ago, Maria, otoi ixilik.

Hik ez dun ikusi nere keinurik! ...

Nahi dun jakin zer den!...

Ttintta bat edanez geroz, begiak ñirñir" zer! ez du ahalgerik?

Edan hezake azkarren hortarik,

Gatilua, gatilua beterik!

MARIAK. – Hau pollita diagan! Xoxoak beleari: beltzal

Bazakinagu, tresna makurra,

Ez dunela hik hatsa laburra;

Ez dun, ez , dionan bezala, horma xurgatuz biribildu muturra,

Ez eta ere gorritu sudurra

Milikatuz, milikatuz elurra!

JOANAK. – Jainkoaz, geldi zaizte otoi!

MARIMARTINEK. – Geldi? gizon bat moldatu duenak ez ote du moldatuko
mutxurdin mukutsu bat?

Apo mutxurdin moko bipila.

Zeren ondolik ote habila?

Hatz badun gibel-aldean, ikusiko dun zonbat naizen abila!

Xuhur badun, neska zirtzila.

Ago ixil, ixil, ixil, ixila!

MARIAK. – Zer uste dun, demuntren hanka handia, hire beldur naizela? Ez nun
ez gero hire senar zena bezen gaizoa!

KATIXAK. – Ba eta aseak gaitun gero hitaz, Marimartin!

MARIXUMEK. – Aseak eta erdi!

GEAXENEK. – Lepo-zintzurraz goiti!

JOANAK. – Ixil zaizte bada, Jainkoaren izenean!

KANTARIEK. – Kartak utzirik eta tantoak!

Han zituzten han gero saltoak!

Bakarrik guzien kontra zer egingen du Marimartin
gaizoa!

Nahiz izan azkar zango-besoak,

Hartu ditu, hartu ditu paloak!

(Joka zalapartaka lotu dire oro Marimartinen kontra, salbu Joana; hau bertzeak berexi beharrez ari).

MARIAK.— No oraino hori! (*Marimartini emaiten dio kaska bat*).

KATIXAK.— No bertze bat! (*Marimartini emaiten dio ostiko bat*).

MARIXUMEK.— Atxikan hori ere! (*Emaiten dio zunkako bat*).

GEAXENEK (*paso bat emaiten diola*).— Hori populu, hire senar zenaren partez!

MARIMARTINEK.— Jainko maiteak duela bere lorian!

JOANAK.— Aski, otoi, aski! Zer behar dute erran jendek?

- IX -

KANTARIEK.— Herriko besta arrats apalian,

Lau gatu zahar Anjelusian,

Bat maingu, hiru saltoka, sorginak pujes! zoazila
bidian

Nik ikusi ditut amets batian Akelarre, akelarregainian!

JOANAK.— Ai! zer pozoinak! Bai zinez! Gaixo gizonak !!!

L. LÉON



MEHETEGIKO NAUSIA!



MEHETEGIKO NAUSIA!

AGERTZEKOAK

ANDERE RHODODENDRON, 66 urte	}	<i>hiru ahizpa-mutxurdinak</i>
ANDERE REZEDA, 64 urte		
ANDERE ROZA, 62 urte		
KATTALIN, 35 urte, <i>etxeko neskatoa</i> .		
JOANA, 24 urte, <i>auzoko neskatoa</i> .		

AGER-TOKIA

Barne bat guti eta aski plantakoa: ez eder ez itsusi. Halaber, hiru fotia, lau kadira... Armairutto bat xoko batean, mahain bat erdi-erdian.

- I -

(Kattalin, lumazko jatsño bat eskuan ari da hauts kentzen, «Mehetegiko xakurra» kantatzen duela baina airea bakarrik).

KATTALINEK (*Kantatzetik golditu da eta beiarria aterat buruz luzatzen duela*).— Jes! zerbait gertatu bide zaiol! ... Usaian hemen dut hura, nere hiru mutxurdinak ateratu orduko! ... Bai segur, zerbait baduke! ... (*Berriz hasten da kantuz aire berean, hitzak erran gabe ... Gero:*) Hiruak eta erdiak! ... Oren laurden bat jadanik nere hiru mutxurdinak joanak direla! ... Zer sorgin ari zait bertze hura? Atzoz geroz ez dudala ikusia! ... Luze heldu da! ... Ez da bederen eritu! ... Bai, bai! Ez da bertzerik! Eri da! ... Eri da! Gaixo Joana! Ez ahal da hilen agian holako neska plantakoa! (*Hipaka nigarrez badoa atera... heidu da gibeierat kantuz beti aire berean*) ... Nork daki? Beharbada batere ez da eri! ... Ha! orai oroitzen bainaiz! Bazkaltiarrek bazituzten egun! Joanak berak errana atzo! Non ote nuen burua? ... Au! etxe onean da bederen hura! Badu etxekandre bat pastiza bezain ona! ... Eta zenbat bazkari ez dute emaiten! ... Astean bizpahiru segurik! ... Bazkari batek ondar onak uzten beti! Biba zu, Joana! Zuk ez duzu nik bezala goserik jasaiten! (*Kantuz aire bera*) ... Jes! etxe huntan sartuz geroztik neskato, aire hori baizik ez dut gogoan eta ezpainetan: (*Kantuz emaiten ditu hitz hauk*): «Mehetegiko xakurra, zangoz-errainez makurra.» (*Bere zango-errainer behatuz*): Ez naiz Mehetegiko xakurra, bainan bai Mehetegiko neskatoa, eta badut beldurra, hemen egoiten banaiz zonbait aste oraino, zango-errainak hasiko zaizkitan makurtzen! ... Segur naiz nere hiru mutxurdinek kantu hori ez dutela sekula entzun! ... Behar diotet kantatu egun horietarik batez! ... Konprenituko ote dute? Ai! frikunak, aski abilak dire bai ez konprenitzeko, ez konprenituarena egiteko ere bai! ... Ba ote dakit kantu guzia gero? ... Hea! lehen kobla: (*airea bakarrik emaiten du*) ... Bai, hori badut! ... Bigarrena: (*airea bakarrik*) ... Hori ere bai! ... Hirugarrena: (*airea bakarrik*) ... Hamabi kobla bazituen nere haurrean kantu horrek! Ez ahal du bihirik galdu xahartzean! Xaharrek

hain aise galtzen dituzte biloak eta hortzak! ... Oroit naiz bazela bat, kobla bat gero, azkenaren aintzinekoa naski, hum! hum! Hala hulakoal! Ez dakit erraiten ahalko dudanetz hura! ... Eta hura dut futxo! erran behar gorriena! ... Bada kobla hortan hitz bat, beharri minberek aditu nahi ez dutena! ... Zertako ote? Hitz horrek erran nahi duen gauza ez dutaeakotz aditzen ahal nik uste! Zer bitxikeria haatik: delako hitzak harrabotsa ba eta usainik ez! Eta delako gauzak usaina ba eta harrabotsik ez! ... (*Kantuz aire berean, hitzak erran gabe; azken bi bertsuak bakarrik hitzekin*): «Etxekandreari gantza, nausiari azken putza!»... Oii! eii! aii! ei espakatu zait! ... Ba! erranez geroz ez da hain itsusia! ... Erranen diotet bai nere hiru mutxurdiner ere ... (*irriz dago bera*).

- II -

JOANAK (*gordea oraino*). – Kuku! ... Kuku! ...

KATTALINEK. – To! kukua ere kantuz ari ni bezala! Ikus bortz soseko bat bederen badudanetz sakelan! ...

JOANAK (*agertzean, irriz*). – Bortz soseko bat sakelan! Zertako hori, Kattalin? ...

KATTALINEK. – Hor zare beraz, Joana? ... Bazinaki nola berantetsia zintudan! ... Zer bazkaria ahal zinuten! ... He! ...

JOANAK. – Bai, Kattalin, bazkari bat gaitza! ... Bainan ez dautazu errana bortz soseko hura zertako zinuen ...

KATTALINEK. – Zer! Erran zaharra ez baitakizu? Kukua lehen aldikotz aditzearekin kantuz, bortz soseko bat bederen balin baduzu sakelan, urte guziko sosa segura duzu! ... (*Sakela guziak bilaturik*) Ardit bat ere ez dut! Xahu naiz urte guzikotz! ... Kuku ihartua! Madarikatua! ... Kantuz hasi behar ere egun! ...

JOANAK. – Ez kexa, Kattalin! ... Ez zen kukua! Ni nintzen atetik ari! ... Ez nauzu madarikatzen, ni!

KATTALINEK. – Ez, gaixo Joana, ez! ... Benedikatzen bai! ... Zu zare mundu huntan nere zorion bakarra, nere iguzkia, nere ilargia, nere izarra, nere zerua! ...

JOANAK. – Aski, Kattalin, aski! ... Ez zaitu, ori, andere Rezedak aditzen! ...

KATTALINEK. – Andere Rezeda! . Ez naiz sekula usatzen ahalko izen horri, ez bertze bier: Andere Rezeda, Andere Roza, hau oraino nobait han! ... eta hirugarrena? Andere Rondindon! ...

JOANAK. – Ez da Rodindon ez gero! ...

KATTALINEK. – Badakit! ... Aldi guziez meskealatzen dut izen hori eta nere hiru mutxurdinek erasiatzen nute! ... Bainan berriz aditu orduko, ahantzia dut! ... Nola da euen?

JOANAK. – Andere Rhododendron!

KATTALINEK. – Rho-do-din-don!

JOANAK. – Ez dindon! ... Dendron!

KATTALINEK. – Dendron, ... Rho-do-din-don!!! ... Ez da hola orai ere! ... Bainan erradazu zuk non izanak diren izen perrreka hoien biltzen? ... Ez dut egundaino holakorik ikusi almanakan! ... Nongo zeruan dire santa hoik?

JOANAK. – Ez dire zeruan? ... Baratzetan dire, baratzetan!

KATTALINEK. – Baratzetan!?

JOANAK. – Hiru loreen izenak dire: Rezeda, Roza eta Rhododendron!

KATTALINEK (*irriz urratua*) . – Hiru loreen izenak? Ha! ha? ha! ... gure hiru mutxurdin lore pollitak! ... Ha! ha! ha! ... Rhodindon oraino nonbeit han,

ez baitzaiz iduritzen ere lore baten izena dela! Ha! ha! ha! ... Dudarik ez da, aita baratzezaina zuten segura! ... Ha! ha! ha! ... !! Aditu duzu! ... Ez ditut bederen nere hiru loreak hor! (*Badoa aterat ... gibeleratekoan*): Ez, ez! ez ziren hek! Harrabotsik ez dute bertzela ere lorek, usaina beharbada! ... Eta oraino nere mutxurdi-lorek usain tzarra! ... (*Arte hortan Joana itzali da, ustez hiru mutxurdiak ziren heldu*).

- III -

KATTALINEK (*zoko guzietarat behatuz*). – Zer egin da Joana? Gaixoa! izitu da! ... Ez zen bada zerik! ... Ni ez naute izitzen batere nere hiru lorek! ... To! kadira hunen azpian zer da hau? (*Oihal batean koropilaturik zerbait jateko: hartzen du eskue-tan*) ... Zoin plantakoa den haatik Joana hori! ... Egun ere ekarri daut bazkari ondarrerria zerbait! ... Oilo ixterb at? Oilasko hegalt bat! ... Ongi-etorri segurki eta halere! ... egin dudun bazkariaren gatik, badut zerbaiten beharra! ... Ogia ere ez du ahantzi! Badaki alabainan armairu guziak gakoak ditudala hemen! ... Pegarra bakarrik libroan! ... Hauk jan ondoan, hari ere hitz bat erranen diot beharritunturat! (*Jaten hasi da, bizkarrez ateari eta fotil batean jarritik*).

- IV -

RHODODENDRONEK (*harrabotsik gabe sartua da; Kattalini zer ari den oharzearekin; Ikxu-kexua*). – Ha! ha! Kattalin, hatxematen zaitut erdiz-erdi!

KATTALINEK (*higitu gabe*) . – Bai, andere Rhodindon!

RHODODENDRONEK. – Mila aldiz errana dauzute ez naizela Rhodindon! Bainan Rhododendron!

KATTALINEK. – Luzegi da nik ontsa erraiteko!

RHODODENDRONEK. – Errazu Rhododendron!

KATTALINEK. – Rho-do-din-don!

RHODODENDRONEK. – Ez Dindon! ... Dendron! ...

KATTALINEK. – Dendron!

RHODODENDRONEK. – Erraiten bazinaut Andere! ... Etzaizkitzu ez, ezpainak makurtuko erranikan ere Ander ...

KATTALINEK. – Andere, ... Baduzu aski hola?

RHODODENDRONEK. – Zer ari zare hor?

KATTALINEK. – Jaten!

RHODODENDRONEK. – Jaten? Baduzu burutik!

KATTALINEK. – Burutik ez, sabeletik! ... Zer uste duzue? Goseak hil nahi naizela? Ez, ahal badut segurki ez!

RHODODENDRONEK. – Nondik atera dituzu jateko hoik?... Armairuak ontsa hetsiak ginituen, gure ustez!

KATTALINEK. – Zuen armairuetan ez da sekula holako oiloteirik sortu ez sartu (*sudurraren azpian emaiten dio oiloiterria*) ... Sobera zikoitzak zaizte ba, hiruak! ... Ez dut, zuek bezala, usaina eta ihintza aski bizitzeko! ...

RHODODENDRONEK. – Usaina eta ihintza? ... Zer erran nahi duzu?

KATTALINEK. – Nik badakit zer erran nahi dudun! ... Baratzerat zoazi ikusteko zertarik bizi diren loreak! (*Irriz dago*) ...

RHODODENDRONEK. – Ez da haratik ez hunatik! ... Burua nahasia du

hunek!... Horra zer den sobera jatea!... (Hurbildurik oihu egiten dio):
Kattalin!!! (*Hau ez baita higitzen ere, berriz*): Kattalin!!!

KATTALINEK. – Zer duzu hola oihuka? ... Ez naiz gogorral... Zer nahi duzu?

RHODODENDRONEK. – Mokanesa ahantzirik joanak baiginen hiruak, jauts
adazu bat gainetik!

KATTALINEK. – Bat bakarrik? ... Bedera!

RHODODENDRONEK. – Bat erran dautzut eta ez bedera! ... Hiru mokanesen
higatzen ariko gare, batekin egiten ahal dugularik hiruek! (*Kattalin ateratu
da oro keinu, oihala eta oihalaren barnekoak ahantzi gabe*).

- V -

RHODODENDRONEK. – Bai, neska horrek badu zerbait! ... Pollitak ginitazke,
burutik johan bazaiku arras!... Pauerat beharko ginuke igorri! ... Nere
ahizpa andere Rezeda eta andere Rozarekin beharko naiz mintzatu sarri
berean! ... Pauen gure gain litake alabainan! ... Hobe dugu kanporat
emaitea lehen bai lehen! ... Kanporat emaitea! Bai eta gero? Non
hatxamanen dugu neskato bat hau bezain merke? ... Ez da aise
izanen!... Holako diruketa galdatzen dute oraiko neskatoek!... Hau ere
pagatzen dugu bai hogoi-ta bortz libera ilabetean!... Bada zerbait!...
Bainan bertze batek galdatuko dauzkazu hogoi-ta hamabi!... Hauxe da
ixtorioa!...

- VI -

JOANAK (*Rhododendron ikusirik harritua*). – Barkatu otoi andere
Rhododendron!... Zera nuen...

RHODODENDRONEK. – Zu zare hor, Joana? Zuk bederen ontsa erraiten duzu
nere izena!... To! hain xuxen gauza bat galdatu nahi nautzun aspaldi
hontan!... Gure artean dagola haatik!...

JOANAK. – Zerbitzari, andere Rhododendron!

RHODODENDRONEK. – Laketua zare naski auzo hortan?

JOANAK. – Bai, bai, ezin hobeki!

RHODODENDRONEK. – Eta... eta ... zonbat duzu hilabetean?

JOANAK. – Hiru ehun libera!

RHODODENDRONEK. – Hi... hi... hiru... hiru ehun libera? (*flakatua bezala
erortzen da fotila baten gainerat, Joanak laguntzen du bere-baitaratzen*)...
Hiru ehun liberal... Joana gaixoa, etzozula otoi holakorik aipa ere
Kattalin!... Xahu ginitazke!

JOANAK. – Bainan badaki aspaldi!

RHODODENDRONEK. – Ba... ba... badakiela? ... Ho! la! la! la!... Ez dugu
segurki kanporat emanen!... Nahi duena egiten ahalko du, ez dugu
Pauerat ere igorriko!...

- VII -

KATTALINEK (*sartzean*). – Horra zuen mokanesa, andere Rhododendron!...
To! orai ere gaizki erran dut!...

RHODODENDRONEK. – Berdin du, berdin du, Kattalin gaixoa!

KATTALINEK. – Holakorik ez dautazu behin ere erran!... Dena den, andere

Rezeda eta andere Roza zure beha balin badaude zintzatzeko, pekada sudurraren puntan dukete aspaldi!...

RHODODENDRONEK. – Pekada! Zoin pekada?

KATTALINEK. – Ez bi hegalekilako hura ez segur!... Bertze bat! ... Ez jateko ez eta edateko on ez den hura!...

RHODODENDRONEK (*ateratzean Joanari*) . – Ez, ez! Ez dugu Pauerat ere igorriko!

- VIII -

JOANAK. – Zere egin diozu, Kattalin? ... Deusik ez dut konprenitu haren solasetan!...

KATTALINEK. – Zoin solasetan?

JOANAK. – Galdatu daut zonbat irabazten nuen!... Eta erran diotalarik aspaldi dakizuna, hiru ehun libera! hasi zait...

KATTALINEK. – Aditu dut!... Ez nutela kanporat emanen!... Ez baitute ni bezain merkerik hatxemanen!...

JOANAK. – Bainan, Kattalin, erradazu bada zertako zauden hemen soldata mehe hortan, bertze nonbait gehiago bazinukelarik?

KATTALINEK. – Erranen dautzut, Joana, beharri xilorat!... Nehori ez salatzekotan, he! ... Orai arte egon naizen toki guzietan sehi kondu nintzen, hemen etxekandre naiz!...

JOANAK. – Zu?... Etxekandre!... Hemen? ...

KATTALINEK. – Bai, etxekandre... ni ... hemen! ... Nere hiru mutxurdin-loreak sobera zuhurak dire neskato bati gehiagoren emaiteko!... Horra zertako ez nuten kanporat eman nahiko sekula! ... Nahi dudana egiten dut heiekin, gaina hartua diotet, nik dut manatzen hemen!...

JOANAK. – Mahainean salbu naski? ...

KATTALINEK. – Mahainean salbu, bai! ... Hori dut nere itzal bakarra!... Hortan ez da deus egitekorik!... Ez gure Jainkoak, ez deabruak, ez nik ez diotegu moltsa idek-arazten ahal!... Nahiago lukete sabela ideki haitxur ukaldika!... Badakizu ostion bazkaltzeko zer jan duten?

JOANAK. – Jainkoak daki!

KATTALINEK. – Nik ere badakit!... Arroltze bat! Arroltze bakar bat hiruen artean!... Kuxkuan!... Aldizka bustiz gorringo guzia jan dute lehenik eta gero xuringotik gehiena!...

JOANAK. – Zertako ez xuringo guzia? Ala ez dire xuringokoak?

KATTALINEK. – Milikatuko zuten bai dena hura ere!... Beharrik andere Rezeda oroitu baita ni ere hor nintzala! Horra nere egungo bazkaria beraz: xuringo miko bat kuxku guziarekin!... Bainakien beharrik zu jitekoa zinautala zerbeit ondar onekin!... Zu ez bazinitut, nere hiru lore petentak aspaldi utziak ninduzken hazitako!... Hazitako!!! ... Hazi pollitak, Jainkoaren den!... Tomate haziak balire bederen!...

JOANAK. – To! oroit-arazten nuzu tomate egiten ari garela: botoilak suaren gainean ditut. Ez ahal zait bihirik hautsi!... banoa behako baten emaiterat eta heldu naiz abian!...

KATTALINEK. – Zoazi, zoazi, Joana!... Berehala arte!

- IX -

KATTALINEK. – Zer arto puska, Joana hori!... Langiiea eta bihotz ona!... Lana baizik ez du gogoan!... Ba, nik ere ba!... Nik ez baitut haatik hogoi-ta bortz iiberarena baizik egiteko ilabetean!... (*Mehetegiko xakurra kantatzen du hitzak erran gabe*)... Kantu hau ere, beti gogoan dut!... Bai, behar diotet eman hamekagarren hura ere!... Pollitena da-eta!... (*Kantatzen dituela azken bi bertsuak*): «Etxekandeari gantza, nausiari azken... putza»... Gaixo xakurrak horren egiteko indarrak aski ukan baitzuen oraino! Nik ere holatsu utz nezokete nere hiru etxekandrei, hiruentsat bat, eguerdiko arroltzea bezala!... Ni baino lehen hilen baitire, xantza dutel!... Hiltzean zer utziko ote dautate? Ahaide bihi bat ere ez dute, ez hurbilik ez urrunik!... Beren ontasunak nori utz dezokete niri baizik?... Badutela ausarki: diru, etxe eta lur!... Doi-doia Joanari erraiten bainion etxekandre naizelakotz nagola hemen! Ez da egi-egia hori!... Erran beharko nion: egun batez etxekandre izanen naizelakotz hemen!... Baina hori, ez baita pollit pollita, nehoi ez diot salatzen ahal nihuri baizik!... Egun batez aberats izanen naiz!... Bai, andere Rhodindon, aberats!... Adituko dut orduan nik ere: andere Kattalin! Zoin ontsa doatzin bi hitz hoik elgarrekin eta eskuz-esku!... (*Kantuz*): «Nausiari azken... putza!...» Etzen hanbatekoa hori, bainan nausi batentzat aski!... (*Kattalinek azken hitz hauk erraitearekin, sartu dire hiru mutxurdinak*).

- X -

REZEDAK. – Zer zaitzu nausiarentzat aski, Kattalin?

KATTALINEK. – Deus ez, deudsez, andere Rezeda! Nere buruarekin ari nintzen!...

ROZAK. – Zer ari zinen zure buruarekin?

KATTALINEK. – Solasean, andere Roza!

RHODODENDRONEK. – Eta zer solas zinerabilan, ez bainaiz ausartegi?

KATTALINEK. – Zu ausartegi, andere Rhodindon?

RHODODENDRONEK. – Rhododendron, Kattalin!... Dendron eta ez dindon!

KATTALINEK. – Dendron nahiago baduzu, niri berdin zait!...

REZEDAK. – Eta beraz zer zen zure solasa?

KATTALINEK. – Jes! hala da!... Dendron horrekin denak ahanzten ditut eta hori ez ikasten!... Nere solasa etzen baitezpada solasa, kantua zen!...

ROZAK. – Zer! Kantuz ari baitzinen? ... Dohakabea! Zintzuraren higatzeko ere!...

KATTALINEK. – Hori ere hala da!... Hemen ez da inahalaz deusik higatu behar!... Ahokoak hasteko ez ditugu janarekin higatuko!... Bainan nere zintzurak ez du deusik hirriskatzen! Larra azkarrez egina dut!... Eta, nahi baduzue, sarri xaramelatuko dautzuet nere kantu pollita! Lauak eta erdiak baitire nonbait han, eginen dautzuet lehenik dute presa batna!...

ROZAK. – Baduzu burutik, Kattalin?... Dute presa batna!... Ez dakizu duterik ez dugula sekula hartzen?

REZEDAK. – Zainak altxatzen ditu duteak!

KATTALINEK. – Kafe ttotta bat beraz, bero beroa?

RHODODENDRONEK. – Kafea eta bero beroa? ... Behar gabeko bi gastu!...

REZEDAK. – Badakizu, Kattalin, arratsalde guziez gure krakada zer den! Kopa bat ur, garbia eta freskoa, ogi axalto miko batekin!

KATTALINEK (*ateratzean*). – Laster egina da hori!... (*Bere buruari bezala*): Ai! zeruko Ama ona!... Urte guzian garizuma dugu hemen!... Jinen da bai Bazko ere noizbait!...

- XI -

REZEDAK. – Ez, ez! Ez ditake hola joan!... Neska zirtzil horrek gaina hartzen ari dauku arras!... Guk errana egiten duenean ere, zernahi erranka baizik ez du egiten!

RHODODENDRONEK. – Egia zuk, Rezeda maitea!... Bainan zer egin?

REZEDAK. – Zeregin? ... Kanporateman!... Rhododendron maitea, hatxemaiten ahal bazinauku auzoko Joana bezelako bat!... Zer neska gisakoa hura eta umila!

RHODODENDRONEK. – Bai, gisakoa eta umila!... Bainan, Rezeda maitea, badakizu auzoan zonbat irabazten duen?... Erraiten ahalko dudanetz ere ez dakit, hain da izigarria!...

ROZAK. – Hogoi-ta borts libera baino gehiago baititu?

RHODODENDRONEK. – Uste nuke, ori!... Doi-doi jakina dut berak erranik!... Bainan sekula ez dut erraiten ahalko!... Zintzurrean trebes geldituko zait!...

REZEDAK. – Errazu erhiekin!

RHODODENDRONEK. – Ez dut erhirik aski, erraiteko!

ROZAK. – Eman ditzagun hiruen erhiak (*hiruek beren eskuak ateratzen dituzte, erhiak ontsa ageri*).

RHODODENDRONEK. – Hola ere ez da aski!... Hiruen artean hogoi-ta hamar erhi ditugu bakarrik!...

REZEDAK. – Zangoetako erhi zonbeit emanez! (*oinetakoen kentzerat doa*).

RHODODENDRONEK. – Ez du balio oinetakoen kentzea, Rezeda!... Zangoak ez dituzu beharbada garbiegiak!... Edo galtzerdiak xilo!... Eta bertzela ere ez litake aski!...

ROZAK. – Zonbat mila sorgin ditu ba Joanak?

RHODODENDRONEK. – Ikusten ditutzue gure hogoi-ta hamar erhiak? Joanak baditu hamarretan gehiago libera oraino!

REZEDAK (*karkula eginik*). – Zer!... Hi... hi... hiru.

RHODODENDRONEK. – Bai, hi... hi... hiru... ehun libera! (*hiruak flakatuak bezala daude apur bat*).

ROZAK. – Hi... hi... hiru... ehun!... Eta gure Kattalinek hogoi-ta borts!...

RHODODENDRONEK. – Gauza bat arras bitxi zait: gure Kattalin, holako soldatan zertako dago hemen, bertze nonbait gehiago balukelarik?

ROZAK. – Zertako?... Maite gaituelakotz!... Hain onak gare harentzat!...

RHODODENDRONEK. – Kattalinek gu maite?... Ez gaitu-eta begietako zikina baino gehiago ikusten ahal!... Ez!... Bertze zerbait da!... Zer?

REZEDAK. – Bila dezagun elgarrekin!... Kattalin zertako dago hemen?... Hemen lan guti duelakotz? Beraz alferkeriaz?

RHODODENDRONEK. – Ez ditake erran alferra dela! Etxeko lanak ontsa egiten ditu eta badakit auzoko Joana ere laguntzen duela bere lanetan!... Ez diot deusik erran, oihuka hasiko baitzitzaitan, bainan herenegun oraino haren xurikiten egiten ikusia dut!...

ROZAK. – Ha!... badakit orai zertako dagon gurekin!... Gu bezala delakotz! Ez du jatea maite!

RHODODENDRONEK. – Jatea ez maite? ... Gure zartain zeharrena bezain gormanta da-eta!... Doi-doia oraino, gure mokanesaren bila jin naizelarik, oilo ixter baten jaten ari zen!...

REZEDAK. – Oilo ixter bat?... Nondik ateraia zuen? ... Berrogei-ta hamar urte segurik baditu oilorik ez dugula jastatu!... Zure lehen komunioneke zen ori, Roza maitea! Kattalineke ez ahal zuen haren ondarretik!...

RHODODENDRONEK. – Erradazue bada niri zertako dagon hemen?

ROZAK (*gogoetatua egon ondoan*). – Badut, badut oraikoan!... Ez delakotz sosari atxikia!...

RHODODENDRONEK. – Šosari ez atxikia Kattalin? ... Aldi guzietan hilabetearen hamabortzetik hasten zait – nardatzen ere bainu! – hilabetearen ondarra hurbiltzen ari dela erranka!...

REZEDAK. – Nork erranen dauku bada hogoi-ta bortz liberetan zertako dagon hemen?... Ixo! hor dugu!

- XII -

RHODODENDRONEK. – Luze, Kattalin, luze krakada horil...

KATTALINEK. – Ba, ori, andere Rhodindon...

RHODODENDRONEK. – Dendron!

KATTALINEK. – Dendron beraz!... Batere uste gabeen, pegarra hutsa nuen!... Eta iturria urrun!... Ura garbiago eta freskoago baizik ez duzue izanen!... (*anartean mahainaren gainean eman ditu hiru kopa ur eta hiru ogi puxka*).

ROZAK. – Eta zuk, Kattalin, ez duzu ur xorta bat hartzen? ... Arras on da bazkariaren beheiti igortzeko!...

KATTALINEK. – Ba, andere Roza, nere bazkariak ez du holako lagun beharrik beheiti joaiteko!... Bera joanen da segur!...

RHODODENDRONEK. – Eta hauxe dire ogi puska handiak!... Errekan nahi gaituzu eman naskil... (*hiru ogi puxken erdiak emaiten ditu bazterrerat*).

KATTALINEK. – Errekak ere norbait behar du bai, andere Rhodindon!

RHODODENDRONEK. – Dendron!

KATTALINEK. – Dendron!... Egun arras omore onean naiz!... Eta zuek jaten ari zaiztelarik, nahi dautzuet kantu xahar bat eman!... (*jartzen da*).

ROZAK. – Hea ba, Kattalin!

KATTALINEK (*eztut bat egin ondoan*). –

Mehetegiko xakurra
Zangoz-errainez makurra,
Berga bat luze muturra,
Larrutik hurbil hezurra,
Urte guzia barura,
Zeren den toki xuhurra!...

ROZAK. – Gaixo xakurral... Gero!...

KATTALINEK. – Amak ttikitik utzia,
Esnerik gabe hazia,
Tripa errainer josia,
Uliek jaten hasia,
Xurikok bere bizia
Hola derama guzia.

ROZAK. – Gixagaixo xakurra!... Eta zer izen pollita Xurik!...

KATTALINEK. – Xakur gaixoa holakoz
Mørke ase zutelakotz,
Tripa hutsik, ilun gogoz,
Pleinuz zagon egun oroz,
Hazka zangoz eta besoz,
Nihon etzauken kukusoz!

REZEDAK. – Osi eta nik ere ez ditut batere maite kukusoak!...

RHODODENDRONEK. – Eta hain dire xitxi jaleak!

ROZAK. – Gero, Kattalin!

KATTALINEK. – Ez baitzaituztet sobera ausatu nahi, banoa azkenetaratl...
Zonbait gau egun bakarrez
Gorde egonik herabez,
Atera zen jan beharrez
Hamikatua, nigarrez,
Estaiia zaragarrez,
Lakastaz eta zakarrez.

RHODODENDRONEK. – Phul zikin! ... Aski hola, aski. Kattalin!

KATTALINEK. – Ja!... Pollitenak orai dire-tal...
Sukaldean nehor ez da
Sartzen da xakur herresta,
Oilaskoa zen prest presta,
Zeren zen herriko besta,
Usain, milik eta jasta,
Dena jaten du has-eta.

REZEDAK. – Gormant errekitua!... Holakorik bederen etzaiku gertatuko, oiiakirik
ez baitugu sekula!...

KATTALINEK. – Zerbait bada holako lanjeretik kanpo izaitea! Ba! bainan
gero? ...

Etxeko-andre kexua,
Hor heldu da hats-hantua:
«Zakur madarikatua,
Eria hor, usu usua,
Nik hauts-artean burua,
Egik hire ordenua!»

RHODODENDRONEK. – Ederki! Ederki!... Biba etxekandre hura!... Nik ere
berdin eginen nion xakur tzar haril!...

ROZAK. – Zer da ordenua?

KATTALINEK. – Ez baitakizu zer den ordenua, andere Roza!... Frantsesez
testamenta erraiten da! ... Egina ahal duzue, he?... Xurikok hasteko
laster egin zuen berea, gaizoak!...

Ordenuak hau du beltza:
Denen uztea bertzentza!
Xurikok badaki ontsa
Nori zer utz, nola pentsa:
Etxekandreari gantza.
Nausiari azken putza.

REZEDAK. – Ho! ho! Kattalin, azken hori itsusia duzu! ... Nausiari azken!!! ...
Ho! ho!...

RHODODENDRONEK. – Etxekandreak bederen zerbait on ukan zuen!...
Bainan nausiak? ... Azken...

KATTALINEK. – Ez dakit, bainan nik daukat Xurikoren gantza ala azken putza
elgarren bete zirela, erran baditake segurik!...

RHODODENDRONEK. – Zoazi, Kattalin, zoazi sukaldera!... Altxa zkitzu kopa
hauk, hautsi gabel... Hain kario dire!

- XIII -

RHODODENDRONEK (*Kattalin ateratu ondoan*) .- He! ... He!... Zer zaitzue?

ROZAK. – Kantu polita haste hartan, bainan gero?... Nausiaren azken...

RHODODENDRONEK. – Roza! Ez naiz kantuaz mintzo!... zer diozue Kattalinen
maltzurkeriaz?...

REZEDAK. – Kattalinen maltzurkeria!... Zertan?

RHODODENDRONEK. – Zertan?... Ez duzue beraz deusik
konprenitu?... Ordenua!... Testamenta!...

ROZAK. – Ordenua?... Testamenta?...

RHODODENDRONEK. – Ez duzue konprenitu zertako dagon Kattalin hemen
hogoi-ta bortz liberetan?

REZEDAK. – Ez, batere!

ROZAK. – Mikorik!...

RHODODENDRONEK. – Esperantza baitu gure ordenua haren alde eginen
dugula!... Hots! ditugun guziak hari utziko diozkagula!...

ROZAK. – Zertako ez? ... Nori utziko ditugu berdin?... Ez ditugu zorigaitzez
gurekin erematen ahalko!...

RHODODENDRONEK. – Kattalini utz?... Sekula!... Sekula santan!... Nahiago
ninduzke hil aintzin denak jan, hari utzi baino!... Hal Ez! ... sobera trufatu
da gutaz!... Eginen dut nik gure ordenua eta ikusiko duzue!... (*hartzen du
paper xuri bat, izkribatzen zerbait eta gero ahopetik, bertze nehork ez
aditzeko gisan, bi ahizper irakurtzen eta hiruak irriz daude... Kattalin
sartu da Rhododendronek ordenua mahaineko tiroirrean gordetzearekin*).

- XIV -

RHODODENDRONEK. – Elizaraíno ari baigare arratseko otoitzaren egiterat,
norbait heldu bada gu ikusi nahiz, errozu laster hemen garela!...

KATTALINEK. – Ontsa da, andere Rhodindon!

RHODODENDRONEK. – Kaskotzarra ez bertzea!... Rho-do-den-dron!... Den-
dron!

KATTALINEK. – Ontsa da..., dendron! ... (Ateratzen dire hiru ahizpak). Zoazte,
zoazte, Mehetegiko lore gardatsak!... (Rhododendron bezala mintzo):
«Norbait heldu bada gu ikusi nahiz!»... Zuek ikusi nahiz?... Nehork
etzaituzte-eta ikusten ahal ere...

- XV -

JOANAK (*atetik*). – Kuku!... Kuku!...

KATTALINEK. – Bai segurki, hobeak dire kukutzeko!... Zato, Joana, zato, nere iguzkia!

JOANAK. – Ikusi ditut ateratzen eta lanak eginak baititut...

KATTALINEK. – Arratseko otoitzaren egitera jaonak ditut nere loreak!... Zikoitz tzar hoiek uste balin badute Jainkoak entzuten dituela!...

JOANAK. – Zertako ez ditu entzuten?

KATTALINEK. – Bihotza zikoizkeriak usteldua dutelakotz! Hoiek ez dute ez Jainkoa ez laguna maitel! Sosa bakarrik!... Hoi en Jainkoa sosa da!...

JOANAK. – Guk ere ez diogu ez tu egiten!

KATTALINEK. – Ez, behar ere ez!... Bainan guk bederen, baginu, xahutzeko ginuke eta ez zoko batean herdoiltzerat uzteko!... Pirrita bezaia, sosa biribila egin dute, kurri dadien kurri, eta ez tokiaren gainean egon!... Ez delarik, ez da!... Bainan badelarik, ez balitz bezala bizitzea!...

JOANAK. – Bazinu zuk, zer egin zinezake?

KATTALINEK. – Sosa banu nik? ... Beharko lituzke ba mutxikoak eta zazpi jauziak eman usul... Ontsa jan, ontsa edan, ontsa apain, ibil! harat eta hunat, ontsa josta!... Horra!...

JOANAK. – Kattalin gaixoa! Maita dirua berarentzat ala ematen dituen atsegin arinentzat maita, ez ote dire biak berdintsu?... Ez ote dire biak diruaren sobera maitatzea?

KATTALINEK. – ... Ja! ja! ja! ... Eta gero ere, zer nahi den, horra nik zer egin nezaken! Zer eginen dudan egun batez, aberats izanen naizelarik!...

JOANAK. – Aberats izaiteko esperantza baituzu?

KATTALINEK. – Dudarik batere gabe!... Norentzat uste duzu direla hiru lore zimildu hoi en ontasunak? ... Ontsa irabaziak izanen ditut segurki!... Hogo-ta bortz liberetan hemen bainago gosea eta egarrai!... Adi-arazia diotet bai ostion eta abilki, Mehetegiko xakurraren kantua emanez!... Konprenitu ote dute?... Tol orai oroitzan bainaiz, zer sartzen ari zen hemen doi-doia gure andre Rhodindon?

(*Tiroirra idekitzen du eta delako papera eskuetan hartzen*).

JOANAK. – Kattalin, paper horren irakurtzeko dretxorik ez duzu!...

KATTALINEK. – Dretxorik ez denean, hartzen da, Joana!...

JOANAK. – Gaizki ari zare, Kattalin!

KATTALINEK. – Xol ... Xol!... Ai! ei! ai! Bihotza tanpaka ari zait! ... (*irakurtzen duela*): «Hau da gure ordenua»: Jarri behar naiz!... ez nauke xutik!... «Hau da gure ordenua»: Ordenuak hau du beltza, denen uztea bertzentza. Beltz horri ihes ezin egin guk ere, ditugun guziak uzten ditugu herriko hamar familia beharrener. Gure sehia ez baitugu deus gabe utzi nahi, Kattalini uzten diogu azken...»

JOANAK. – Azken zer?

KATTALINEK. – Bugresak ez bertzeak! (*papera aurtikitzen du lurrera*)... Banoa berehala nere paketaren egitera! (*ateratzen da kexu saminenean, diolarik*): Bugresak!... Higuigarriak!...

JOANAK (*papera bildurik*). – «Kattalini uzten diogu azken p!... P. hori zer ote ditake?... Ha! bai, bai, bail... Ez da hanbat aseko ez jostatuko horrekin!... Horra Kattalin Mehetegiko nausi, bainan ez etxekandre!



L. LÉON.

Hiztegia

Haixkur = goraizeak
Mutxurdun = neskazar
Dendara = joskuna
Prakikurik = kiñterik
Plankakoa = preskua
Samur = haserre
Lisa-burdin = plantxa
Kexu = haserre
Aski = nahikoa
Harroka = arkaitz
Errez = erraz
Gako = giltza
Oskion = lehenxeago
Eri = gaixo
Abantxu = ia, hasik
Herra = gorrotoa
Bulta = momentu bat
Xifritua = beldurak jota, desolatuta
Ontsa = ondo, ongi
Kalapita = haserre
Kadera = aulkia
Sarri = gero
Kasu = kontuz
Trufatu = burlatu
Akitzen = nekatzen
Urso = uso, urtxo
Libera = franko
Aizina = akia, denbora
Dupína = lapikoa
Fokila = besaulki, frantsez fankenil
Harrabotsa = abarrotsa
Ardit = lehenagoko monera berezi bat
Arroltze = arraultze
Dute presa = tea, frantsesez thé
Sehia = neskamea, neskatoa
Tanta = izeba
Garratoin = arratoi

